**EZTABAIDA:** *Zer iritzi duzu antidoping kontrolari buruz?* /7

# Goienkaria



EGUBAKOITZA • 2001eko uztailaren 13a • II. urtea • 230. zenbakia • DOAN BANATZ

**KIROLA:** ANE MIREN FERNANDEZ BOSGARREN ESPAINIAKO TXAPELKETAN /8

Goienka2a
**Antzuolako mairuaren alardea uztailaren 14an**

**HERRIZ HERRI**
**Arrasate: urri arte dute tabernariek isunak ordaintzeko /5**

**JUAN MARTIN ELEXPURU**
*"Ezker abertzalea banatuta zegoen lehen ere"* /10

UDALEKUAK 2001

# Uztaileko oporrak lagun artean jolasean

Uztailarekin batera, ibarreko ume eta gaztetxoek eskolan oporrak hartu eta kalean gora eta behera ibiltzen dira noraezean. Hala izango litzateke, seguruenik, herri bakoitzeko udal eta elkarteek gaztetxoenendako udalekurik antolatu izango ez balute. Gurasoek ere poz-pozik hartzen dituzte halako ekimenak. Gaur egun, Debagoieneko herri guztietan egiten dira udalekuak. /2-3



San Ferminak ere ospatu dituzte udalekuetan. Argazkian ikus daitekeenez, neska-mutikoak txupinazoaren zain. AMAGOIA LASAGABASTER

OÑATI/ENPRESAK

## Ulma Hormigon polimerok lantegi berria inauguratu zuen Zubillagan

Oñatiko Ulma Hormigon Polimeroren egoitza berria inauguratu zuten joan den egubakoitzean. Lantegia Zubillagako Osiñurdin industrialdean eraiki dute eta 7.000 metro koadro ditu. Inaugurazio ekitaldian, Josu Jon Imaz Industria sailburua izan zen. /3

OÑATI/ENPRESAK

## Oñatiko Zahor enpresak industria pabilioi berria egingo du oraingoaren ondoan

Zahor enpresak Udalari eskatu dio industria pabilioi berria egiteko baimena. 400 milioiko aurrekontua dute eraikina egiteko. Hiru solairu izango ditu, eta 6.000 metro koadro. Gaur egungoaren parean, Berezao auzoko lurretan, egingo dute. /3

ELGETA/LANA

## Elgetako Forjanor lantegiko langileak greban joan den astea ezkero

Forjanor enpresako 57 langilek greba hasi dute. Urte askoan jardun dute irtenbiderik aurkitu ezinda, eta sasoia heldu dela aipatu diote *Goienkaria*ri ELAko ordezkariek. Soldatan eta lanordu kontuetan hobekuntzak eskatzen dituzte langileek. /3

ANTZUOLA/JAIAK

## Atzo hasi eta domekara bitartean, jai giroa nagusituko da Antzuolan

Atzo Antzuolako jaiak hasi ziren. Goizean, umeendako jolasak eta bazkaria izan ziren eta arratsaldean hasi zituzten jaiak, txupinazoarekin eta kanpai hotsekin. Iluntzean, dantza izan zen nagusi. Domekara arte, era askotako ekitaldiak izango dira /14

LENIZ MOTOR
JUAN M. ZUAZUBISKAR
BASO, LORATEGINTZA ETA NEKAZARITZARAKO TRESNAK

Gipuzkoa etorbidea, 9
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 78
VIKING
STIHL

HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • KIROLA/8-9 • KULTURA/12-13 • NON-ZER/14-15 • ZERBITZUAK/16 • DENBORA-PASA/17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 •

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko uztailaren 13a

# Txikien aisi

## Gaztetxoek eskola bukatu dutenez, herri guztietan udalekuak abiarazi dituzte

IKER BARANDIARAN

Uztailarekin batera, ibarreko ume eta gaztetxoek eskolan oporrak hartu eta kalean gora eta behera ibiltzen dira noraezean. Hala izango litzateke, seguruenik, herri bakoitzeko udal eta elkarteek gaztetxoenendako irtenbiderik topatu izango ez balute. Era berean, gurasoek poz-pozik hartzen dituzte halako ekimenak. Gaur egun, Debagoieneko herri guztietan daude horrelako eskaintzak.

Aretxabaleta eta Arrasate dira zerbitzu hori ematen denbora luzeen daramatenak, 80ko hamarkadatik hona, hain zuzen ere. Aretxabaletako Udala, Poxpolin aisialdi taldeak eta Loramendik lau eta hamabi urte arteko gaztetxoendako udalekuak eta "Kirolaz Blai" antolatu dituzte. Arrasaten, Txatxilipurdik bi urtetik hamasei urte arteko gaztetxoendako eskaintza zabala lantzen dihardu. Eskoriatzako Udalak bi eskaintza egin ditu: bata, txikiendako, eta, bestea, *Gazte Kantoi* izenekoa, apur bat nagusiagoendako. Leintz Gatzaga eta Aramaioko herritarrek ere badituzte halako ekimenak.

Gatzagan, azkeneko laupabost urteetan, gurasoen elkarteak aisialdi zerbitzu polita antolatu du, bi urtetik hamabi urte arteko gaztetxoei inguruak erakusteko. Are gehiago, gurasoak garraio eta janariez arduratzen dira, fin-fin. Aramaion, berriz, aurtengoa udalekuak egiten dituzten bigarren aldia da, eta ardura guztia Udalak hartu du. Eta badu berezitasun bat: Aramaioko herriak daukan auzo kopuru handia kontuan hartuta, aurrekontuaren erdia umeen garraioan gastatzen dute, auzoetatik kalera eraman eta ekartzean, hain zuzen ere. Oñati eta Antzuolako kasuak antzekoak dira, bietan herri bakoitzeko udala egiten da udalekuen kargu. Hala ere, Antzuolako kasuan, esaterako, udalekuak bukatzen diren egun berean herriko jaiak hasten dira, eta Haurren Eguna ospatzen dute.

Oñatin, berriz, herriko bi ikastetxetako haurtzaindegiekin lehiatu behar izaten zen udal zerbitzua, eta aurrelana egiteko herriko enpresatxo bat azpikontratatu dute. Bergaran, Xipizaro ludotekak hartu du udalekuen ardura azkeneko urteetan, eta Elgetan, berriz, kirol eskaintza da nagusi urteko sasoi honetan.



AMAGOIA LASAGABASTER

### Txikienak ere San Ferminekin bat

Nolabaiteko tradizio bihurtu da inguru hauetako udalekuetan San Fermin Eguna ospatu eta entzierroa bera antolatzea. Urteroko hitzordu bilakatu da gaztetxo askorendako, baina Iruñean ez bezala, geurean lasterkariek ez diote inolako beldurrik zezenei eta kalte handienak zezenek eurek izaten dituzte.



MONIKA BELASTEGI

### Bizipenez betetako uztaileko udalekuak

Ikusgarria da sasoi honetan kalean ume mordo bat elkarrekin ikustea. Askotan, bereizgarri gisa, txapela jantzita eramaten dute eta alboan begirale bat baino gehiago izaten dute zer egingo duten adi. Halakoak ikustea polita bada ere, zer esperientzia biziko dituzte eurek! Musuak ikustea besterik ez dago.

**Leintz Gatzagan, duela laupabost urte, hainbat gurasok txikiendako jardueraren bat prestatzea erabaki zuten eta lanean dihardute ordudanik. Gero, gurasoen elkartea eratu zen, eta irteera bakoitzeko garraioa eta janari prestatzeak euren artean banatzen dituzte.**

**Duela bi urte arte Aramaion ez zen udalekurik egiten, eta orduan Udalak erabaki zuen udalekuak antolatzea. Baina herriak daukan auzo kopurua kontuan hartuta, aurrekontuaren erdia gastatzen dute umeak garraiatzeko zerbitzuan.**

**Bergaran, azkeneko bospasei urteetan, Xipizaro taldeak, Ludoteka kudeatzen duen berberak, udalekuak antolatzen dihardu. Plaza mugatuak dituzte: hasieran 300 lagun zen muga; gero, 350, eta gaur egun, 400. Hala ere, plazak bete egiten dira beti.**

# ldia

## SONIA PEREZ/Txatxilipurdiko udalekuetako arduraduna

# *«Udalekuak erdialdean eta auzoetan egiten ditugu»*

**Sonia Pérezek hainbat urte daramatza Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi taldean lanean, eta joan den aspaldian udalekuak antolatzen dihardu buru-belarri. Elkarte horrek urte ugari daramatza ume eta gaztetxoekin lanean, eta urtean askotariko jarduerak antolatzen ditu.**



**Noiz hasi zineten herrian udalekuak antolatzen?**

Txatxilipurdi sortu aurretik, Arrasate Euskaldun Dezagun elkartea ibili zen herrian halakoak antolatzen, baina gero, udalekuak antolatzeko beste elkarte bat sortzea erabaki zuten, eta 1994an, Txatxilipurdi sortu zenean, talde horrek ardura osoa hartu zuen. Ordutik hona ez diogu lan horri utzi.

**Asko aldatu dira Arrasateko udalekuak hasierako aldiekin alderatuta?**

Bai. Batez ere, umeen eta begiraleen kopurua asko hazi da. Lehenengo urtean lau begirale ibili ziren, eta aurten, esaterako, hirurogei. Horrez gainera, hasiera-hasieran udalekuen helburu nagusiena zen B eredukoak udalekuen bitartez euskarara hurbiltzea, baina gero jende guztiari zabaldu diogu parte hartzeko aukera. Begiraleen prestakuntzan ere aldaketak izan dira: azkeneko urteetan, begiraleei ikastaro homologatua eta espezifikoki gure udalekuetara bideratutako beste ikastaro labur bat eskaintzen dizkiegu. Bestalde, azkeneko urteetan berritasun berezi bati bide eman diogu: udalekuak herri erdialdean, hain zuzen ere.

**Eta egungo umeek, udalekuen aurreko urteekin konparatuta, oso gustu desberdinak izango dituzte, ezta? Play Station eta antzekoekin lehiatzea erraza da?**

Bai, umeak asko aldatu dira, zalantza barik, baina baita begiraleak eta beste gauza asko ere. Bestela, ume zein begiraleen gustuak, aisialdiko ohiturak, jolasak, abestiak...dena aldatu da urte hauetan guztietan. Arrasaten udalekuak egiten hasi ginenetik hona bizimodu eta ohiturak asko aldatu dira.

Tira, urtero ume eta gaztetxo ugari izaten dugu gure artean. Oraingoz, ez daukagu halako arazorik, ez gabiltza horrekin lehiatzen. Egia esan behar badut oraindik ez dugu Play-Station edo antzekoak gure eskaintzan sartu, eta hori seinale ontzat har dezakegu.

**"Udalekuen prestatze lanetan urtarrilean hasten gara eta irail bukaera arte, egindakoaren balorazioa egin arte, hain justu, ez dugu lana guztiz bukatzen"**

**Zenbat lagunek jarduten duzue prestatze lanetan? Eta noiz hasten zarete antolatzen?**

Udalekuak antolatzen bi lagun ibiltzen gara, baina udalekuak hasteko eguna gerturatzen den neurrian, geroago eta jende gehiago batzen da lan egiteko: material arduraduna, begiraleak eta Txatxilipurdiko beste langileak. Berez, urtarrilean hasten gara prestatze lanetan, eta irailaren bukaera arte, udalekuen balorazioa egin arte, hain justu, lanean dihardugu.

**Ohiko udaleku irekiez gain, zuen eskaintza askoz zabalagoa da, ezta?**

Bai, halaxe da. Aurten, uztailaren 2tik 20ra izango dira udaleku irekiak. Bi urte eta erdikoendako *Bilin-boloka*, hiru urtetik sei urte artekoendako *Baby* lekuak, 10-11 urte artekoendako aurten estreinatu dugun *Tirin-Taran* eta ohiko udaleku irekiak. Bestalde, aurtengo udaleku itxien eskaintza ere askotarikoa da: kanpaldia Orion, Kantabriara bidaia, elkartrukea Bartzelonan eta abar...

## Udalekuak herriz herri

| | Antolatzailea | Ume kopurua | Begirale kopurua | Prezioa |
|---|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | UDALA | 90 | 9 | 2.100 |
| ARETXABALETA | UDALA+POXPOLIN+LORAMENDI | 200 | 25 | 5.500 |
| ARRASATE | TXATXILIPURDI | 600 | 65 | 3.650-7.200 |
| BERGARA | XIPIZARO LUDOTEKA | 400 | 44 | 5.500 |
| ELGETA | UDALA | 34 | 7 | 5.250 |
| ESKORIATZA | UDALA | 129 | 21 | 5.000-6.000 |
| LEINTZ GATZAGA | GURASOEN ELKARTEA | 28 | 3 | 2.000-5.500 |
| OÑATI | UDALA | 190 | 21 | 3.000 |
| ARAMAIO | UDALA | 70 | 10 | 5.000 |

# *Bailaran, labur*

ELKARTASUNA

### Hemengo diruekin El Salvadorren egin diren lanen berri eman dute

Oscar Romero gobernuz kanpoko erakundeak El Salvadorren egiten diharduen lanen berri eman du Mikel Andueza frantziskotar bergararrak. Tacuba izeneko herrian ari da Mikel Andueza, 45.000 laguneko herrixkan. Gehienak etxe barik geratu ziren Mitch hurakanak, lehenengo, eta lurrikarak, ondoren, eraginda. Orain arte, 700 etxebizitza eraiki dituzte, behin-behinekoak guztiak, 16 metro koadrokoak. Aurrerantzean, ostera, etxe hobeak egin nahi dituzte, behin betikoak. Dagoeneko, sei eraikitzen dihardute eta beste 28 etxe eraikitzeko adina diru badaukate. Hala ere, helburua 1.000 eraikitzea da eta horretarako laguntzak kudeatzen ari dira hainbat erakunderen artean. Etxeak eraiki aurretik, mila bat laguni jaten emateko laguntzak bideratu zituzten. Bestalde, jauntxoen lurrak erosi eta familia behartsuei emateko dirua lortu nahi dute. /ENEKO AZKARATE

INGURUMENA

### Amaitu berri da Mankomunitateak antolatutako ingurumen kanpaina

Debagoieneko Mankomunitateak eta Udalako Ingurugiro Eskolak zaborraren arazoari buruzko kanpaina landu dute urte hasieratik hona. Batetik, Lanbide Heziketako 5. eta 6. mailako ikasleei eta DBHko lehen ziklokoei bideratutako ekintzak egin dituzte, eta, bestetik, denei bideratutakoak. Birziklatzeko gida prestatu eta Debagoieneko etxeetan banatu dute. Ikasleen artean, berriz, tailerrak, solasaldiak eta abar egin dituzte. Horrez gain, bi lehiaketa antolatu dituzte: Lehen Hezkuntzako ikasleekin horma-irudi lehiaketa *50 urte barru...zer?* gaiaren gainean. Lehiaketa horretan irabazleak Arrasateko San Andres herri eskolako bosgarren mailakoak izan dira. DBHko lehen zikloko ikasleei, bestalde, datorren urteko leloa asmatzea eskatu diete, eta La Merced ikastetxeko DBHko bigarren mailakoek asmatu dute esaldirik onena. Mankomunitateak eta Udalako Ingurugiro Eskolak antolatu duten kanpainaren helburuak honako hauek izan dira: zaborrak sor ditzakeen ingurumen arazoez jabetzea eta zaborra tratatzeko erabiltzen diren metodoak jakitea, besteak beste. /E.A.

ENPRESAK

### Ulma Hormigon Polimerok lantegi berria inauguratu du Zubillagan

Oñatiko Ulma Hormigon Polimeroren egoitza berria inauguratu zuten joan den egubakoitzean. Lantegia Zubillagako Osiñurdin industrialdean eraiki dute eta 7.000 metro koadro ditu. Inaugurazio ekitaldian, Josu Jon Imaz Industria sailburua, Angel Iturbe Oñatiko alkatea eta Rafael Anduaga Hormigon Polimeroko presidentea izan ziren, besteak beste. Ulma taldeak 44.000 milioi pezetako salmentak izan zituen iaz. Horietatik, 14.000 milioi, hau da, %32, nazioarteko salmentei dagozkie. Gaur egun, 40 herrialdetan saltzen du Ulma taldeak. Azken bost urteotan, bestalde, 30.865 milioi pezeta inbertitu ditu eta epe horretan 1.057 lanpostu sortu ditu. Datozen lau urteei begira, berriz, 40.000 pezetako inbertsioak egingo ditu eta 2004. urtean 76.000 milioi pezeta fakturatu gura ditu, hau da, iaz baino %72 gehiago./E.A.



GORKA ETXABE

OÑATI | ENPRESA HANDITZEA

# Zahor txokolate enpresak pabilioi berria egiteko asmoa dauka

*Oraingoaren parean egingo dute, eta produktu berriak egingo dituzte*

AINTZANE IRIZAR

Zahor enpresak Udalari eskatu berri dio industri pabilioi berria egiteko baimena. 400 milioiko aurrekontua dute eraikin berria egiteko. Hiru solairu izango ditu, eta 6000 metro koadro. Gaur egungoaren parean, Berezao auzoko lurretan, egiteko asmoa daukate. Horrela bada, Berezaoko industrialdean, Udalarenak diren lurrak hartuko dituzte. Oraingo pabilioia eta pabilioi berriaren artean pasabide bat egingo dute, errepidearen gainetik, zubi antzerakoa izango dena. Enpresak dioenez, ezinbestekoa da bi pabilioiak lotuta egotea.



6.000 metro koadroko pabilioia egingo dute oraingoaren parean. AINTZANE IRIZAR

Zahor enpresak produktu berriak egiten hastekoa da; gaur egungo eraikinean ez dute horretarako tokirik, eta horregatik, pabilioi berria egiteko beharra ikusi dute. Baina produktu berriez gain, orain arteko salgaien produkzioa handitzeko aukera ere emango die pabilioi berriak. Gainera, lanpostu gehiago ere sortuko dituzte.

Udalak begi onez ikusi du enpresaren eskaera, «herriko lantegiak sendotu eta hobetzeko enpresen ekimen guztiak moduan», eta hori lortzeko, Udalaren lankidetza beharrezko jotzen du. Baina, baimena eman aurretik, hainbat aldaketa egin beharko dizkio Zahorrek proiektuari, eta Udalarekin hitzarmena sinatu beharko du. Enpresak kontuan hartu beharreko hainbat gauza jakinarazi dizkio Udalak. Besteak beste, eraikin berriak ekoizpen prozesuak eskatzen duen altuera izan beharko duela, eta pasabidearen fatxada beirazkoa izan beharko dela.

Esan bezala, proiektuari hainbat aldaketa egiteaz gain, Udalarekin hitzarmena sinatu beharko du Zahor enpresak; besteak beste, Udalarekin egin beharreko lur trukaketaren baldintzak hitzartuko dituzte.

Beraz, baimena eman aurretik, proiektuaren aldaketa aurkeztu beharko du Zahorrek, bai eta Udalarekin hitzarmena sinatu ere.

BERGARA | ERROTALDE PARKEA AURRERA

# Errotalde parkea txukuntzeko lanak aurrera doaz

*Santa Ana ermitari erantsitako eraikin zaharra bota zuten martitzenean*

MONIKA BELASTEGI

Kultura Etxeko parkea, Errotalde, egokitzeko planean beste urrats bat eman dute aste honetan. Santa Ana ermitaren ondoan zegoen eraikina bota egin dute. Hurrengo urratsa, datorren urtean ermita berritzea da. Azken helburua, parkea bera egokitzea.

Ingenieria Construccion Excavaciones SL enpresa arduratu da Santa Ana ermitari erantsitako eraikina botatzeaz. Martitzenean hasi ziren botatzen, eta aurrekontua hiru milioi eta erdikoa da.

Lan hori Errotalde parkea egokitzeko planaren barruan dago. Planean aurrez ikusi dutenez, Santa Ana ermita berritu egingo dute. Baita Kultura Etxeari erantsita dagoen errota zaharra ere, eta baliteke Jardun euskara elkartearen egoitza izatea. Ondoren, parkea txukunduko dute, baina ez berehalakoan. Izan ere, hurrengo urratsa ermita zaharberritzea da, eta hori ez dute datorren urtera arte egingo, udaleko iturrien esanetan.

**Zertzelada**

**Santa Ana ermita ere zaharberrituko dute. Eraberritu eta gero, kontzertu txikietarako erabiltzeko aukera aztertzen dihardu udalak**

**SANTA ANA ERMITA**

Ermita goitik behera konpontzeko asmoa du udalak, eta 36 milioi inguruko aurrekontua du. Kopuru hori, baina, datorren urteko aurrekontuetan jasotzeko asmoa du udalak. Gainera, oraindik ez dakite Diputazioak dirulaguntzarik emango duen.

Ermitaren estalkia konpondu berri dago, duela hilabete gutxi batzuk. Orain, ermitaren barrualdea eta kanpoaldea daude konpontzeko. Horretarako, ermita osatzen duten elementuak berreskuratu egingo dituzte, eta material berria, ezinbestekoa denean baino ez dute erabiliko. Barrualdean koroa, eskailerak, leihoak eta beirateak konponduko dituzte. Paretak margotu, eta baita saneamenduak, sare elektrikoa, argiztapena eta klimatizazioa jarri ere. Ermita berritu eta gero, kontzertu txikietarako erabiltzeko aukera aztertzen dihardute udalean.




ELGETA | FORJANOR HUELGAN

# Uztailaren 5etik dihardute huelgan langile guztiek

*Sidenor jabe den Forjanorko langileak akordioa egitea espero dute*

IBAN ARANTZABAL

Forjanor enpresako 57 langile daude greban. Urte askoan egon dira irtenbiderik aurkitu ezinda eta sasoia heldu dela aipatu digute Jon Iturrikastillok eta Jon Josu Untzetabarrenetxeak, ELAko ordezkariek.

Bost puntugatik greban: 35 ordu helburu izanda lan orduak murriztea, langileen soldatak parekatzea eta baita soldata igoera ere. Mutuekin ere badute arazorik eta azkenengo puntua aldikako kontratuekin zerikusia duena da, enpresak ez baitu behin betiko langilerik egin gura. Langileak atzo piketea egitea joan ziren Durangora, enpresa hango lantegian ari da-eta piezak egiten.




Txabola, telebista, bideoa, barbakoa... ordu hilei aurre egiteko. IBAN ARANTZABAL

ARRASATE | ARAZOAK TABERNEKIN

# Urrira arteko epea ipini du Udalak tabernen isunak kobratzeko

UBANE MADERA

Arrogoi, Gure-Leku, Branka eta Doke tabernei ipinitako isunak urriaren 31ra arte ez dituela kobratuko erabaki du Arrasateko Udalak. Udalak 500.000 eta 1.300.000 pezeta bitarteko isunak ipini dizkie ordutegia ez errespetatzearren.

Baina orain, eta herriko tabernek egindako eskaerari kasu eginez, behin-behinekoz isunak ez kobratzea erabaki du.

Horrela, tabernariek eta Udalak, ordutegia dela eta ez dela sortutako desadostasuna konpontzen saiatzeko berba egiten segituko dute.

**EZ DAUDE ADOS**

Edozelan ere, tabernariak ez daude konforme Udalaren erabakiarekin. Izan ere, tabernarien eskaera nagusia, tabernetako zarata maila eta taberna noiz ixten den jakiteko ipinitako sonografoak kentzea da.

Baina Udalak ez du hori onartu. Halaber, ez du onartu isunak barkatzea, ezta hemendik aurrera zigorrik ez ipintzea ere. Are gehiago, sonografo gehiago ipiniko dituzte; adibidez Garibai, Olarte, Otalora, Iturriotz eta Loramendi kaleetan.

Eta Udalaren asmoa, polikipoliki Alde Zaharreko taberna guztietan ipintzea da. Itxura denez, handik jaso dituzte herritarren kexurik gehienak.

**ORDUTEGIA BETETZEKO PREST**

Tabernariek bestalde adierazi dute, prest daudela ordutegiari dagokion legea betetzeko, baina, era berean, malgutasuna eskatu diote Udalari. Batez ere, kontuan hartuta taberna asko zaharrak direla eta ahalegin berezia egin behar dutela gaur egungo legedira egokitzeko.

Udalak edozelan ere, tabernariei berba egiten segitzeko prest dagoela jakinarazi die, eta proposamenak eskatu dizkie. Badirudi bi aldeak arazoa konpondu nahi dutela.

**Zertzelada**

**Tabernariak ez daude konforme erabakiarekin. Eskaera nagusia, tabernetako zarata maila eta taberna noiz ixten den jakiteko ipinitako sonografoak kentzea da**

ARAMAIO | HERRIKO ARTISTA GAZTEAK

# Herriko zenbait umeren lanak Guggenheim Museoan daude ikusgai

*Museoak antolatutako "Artea Ikasbide" izeneko programanren barruan*

UBANE MADERA

Guggenheim Museoak, artista handiak hartzeaz gain, artista txikiak ere onartzen ditu. Horren adibide da domekara arte Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sei eskolatako ehun bat umeren lanak hantxe daudela ikusgai. Tartean, Aramaioko San Martin Ikastolako, hirugarren zikloko lehenengo mailako umeenak. Izan ere, Guggenheim museoak antolatutako "Artea Ikasbide" programan parte hartu dute. 10-11 urteko haurrei zuzendutako programa da, eta helburua, artearen bidez umeendako zailena den ikasgaia lantzea da. Ekimena sortzailea denez, umeek taldean lan egiten ikasteaz gain, proiektu bat zelan antolatu, garatu eta bukatu ikasten dute.



Argazkian ikus ditzakezue Aramaioko eskolako neska-mutikoak. EL PAIS

**MATEMATIKA**

Aramaioko umeek Matematika aukeratu zuten. Eta, azarotik maiatzera arte, astero ordu eta erdiko lantegi saioak egin dituzte. Sei hilabete horietan irudi geometrikoak landu dituzte. Horretarako, ume bakoitzak inguruko paisajea irudikatu du irudi geometrikoen bitartez. Herriko maketa bat ere egin dute, dimentsioen bereizketa egiten ikasteko. Eta, erloju bana ere diseinatu dute, "denboraren kontzeptu eta neurketaz aparte, angelu kontzeptua eta neurketa ikasteko, eta baita erregela, eskuaira, kartaboia, konpasa eta zirkulu-erdi graduatua erabiltzen ikasteko ere". Halaber, edukiera aztertu eta ulertzeko bodegoiak marraztu eta botilak tindatu dituzte, eta mapetako eskalak, distantziak eta antzekoak ere landu dituzte. Hori guztia egiteko, Roberto Landeta artistaren eta Aitziber Urtasun, Guggenheim Museoa eta Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko bitartekariaren laguntza izan dute umeek. Horrekin batera, Museora bisitak egitera ere joan dira.

Esan bezala, Aramaioko umeek egindako lan horiek Guggenheim Bilbao Museoan daude ikusgai, Zeberio, Basauri, Pasaia, Zestoa eta Laudioko eskoletako umeen lanekin batera.

ESKORIATZA | OBRAK



## Lanak Olazarren eta Aranan

Herriko hainbat tokitan obretan dihardute. Olazar auzoko lanak, esaterako, ez dira oraindik amaitu. Eta handik gertu, Arana kalean, etxe bat zaharberritzen hasi dira oraingo astean. Hori dela eta, bidearen zati handi batean garabia jarri dute. Lanok hainbat eragozpen sortzen dizkiete oinezkoei eta autoan doazenei.

Olazarren, kale guztian zehar jarriko duten zoladura hormigoizkoa izango da, Intxaurtxueta eta Aranburuzabala kaleetakoa bezalakoa. Bestalde, Udalak iaz indarrean jarritako irisgarritasun arauak ere kontuan hartuko dira. Horrela, espaloi guztiak gurpildun aulkientzako egokitutako izango dira. Lanak amaitzeko, argiak, zakarrontziak eta jarlekuak jarriko dituzte Olazarren. /AMAGOIA LASAGABASTER

ANTZUOLA

## Herriko lurrak berriro sailkatuko dituzte

AINTZANE IRIZAR

Arau subsidiario berria behin behingoz onartu zuten azkenengo osoko bilkuran. Behin betiko onartu aurretik, baina, jende aurrean jarri dituzte aurrez ikusi diren aldaketak. Bi hilabeteko epea izango da nahi duenak alegazioak aurkezteko. Ondoren, Diputazioak ontzat eman beharko du dokumentua. Pasa den astelehenean hitzaldi bat eskaini zuten, aldaketa horien berri emateko.

Oraingo arau subsidiarioak 1984koak dira, ez dira aldatu ordutik. Arau berriek aldaketa nabarmena ekarriko dute. Aipagarriena alde zaharreko etxeei dagokiena da. 1984ko arau subsidiarioetan alde zaharrean etxe zahar ugari bota eta berriak egiteko. Orain oso bestelakoa da Udalaren jarrera. Izan ere, etxe zaharrak berritzeko plana abian du Udalak. Bestalde, gaur egun hainbat nekazal lur industriarako lur izendatuko dituzte; era berean, gaur egungo hainbat industri lur, hiri-lur izendatuko dituzte, eta 110 bat etxebizitza egingo dituzte lur horietan.

ARETXABALETA | PORTASOLEKO SAN LORENTZO JAIAK

# Asteburuan ospatuko dira Portasoleko San Lorentzo jaiak

*Jai batzordeko lagunek arazo ugari izan dituzte festak antolatzeko orduan*

AMAGOIA LASAGABASTER

Uztailaren 13, 14 eta 15ean ospatuko dira aurtengo San Lorentzo jaiak Portasolen. Urtero moduan, sokamuturra eta mus eta xake txapelketak izango dira jaietako ekitaldirik aipagarrienak.

Aurten ere jaiak ospatu ahal izateko arazo larriak izan dituzte antolatzaileek. San Lorentzo jaiak Loramendi eta Portasol aldeko koadrilek gertatu izan dituzte, eta urtero izan da arazoren bat lagun koadrila hori bilatzeko. Aurten, hil hasieran oraindik ez zegoen jaiak antolatzeko batzorderik. Azkenean, duela bi aste animatu ziren herriko 25 bat lagun festak prestatzen.

**AURTEN LAGUNTZA GUTXI**

Jaietako ekitaldiak ordaintzeko dirua ere auzokideen artean batzen dute. Aretxabaletako Udalak 300 mila pezetako laguntza eman ohi du urtero jaiak antolatzeko. Gainontzeko guztia baina, auzokideek eta tabernariek borondatez emandako dirulaguntzarekin ordaintzen dute.

Orain arte, gutxi gorabehera milioi erdi batu izan ohi dute jai hauetarako. Aurten, berriz, 250 mila pezeta bakarrik jaso dute. Horren arrazoia, jai batzordeko kideen ustez, norbaitzuk egindako azpijokoa izan da. Izan ere, zurrumurruen arabera, merkatari eta tabernari askok ez dute dirua eman, ustez, norbaitek jaietako gastu guztiak udaletxeak ordaintzen dituela esan dielako. Udaleko Kultura Sailak, bestalde, argi utzi nahi izan du Udalak ez duela diru laguntza gehituko.

Arazoak arazo, asteburu honetan giro onean ospatuko dituzte San Lorentzo jaiak.

**Zertzelada**

**Gainontzeko urteetan, gutxi gorabehera milioi erdi pezeta batu izan dute jai hauek antolatzeko, aurten, berriz, 250 mila pezeta bakarrik jaso dute batzordekoek.**

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko uztailaren 13a

# Zabalik



DIEGO MARTIARTU

## Kuba

**Ahal izanez gero, aurtengo oporretan Kubara joatea daukazu, urte osoko errutina eramangarriagoa gerta dakizun. Kuba kontraesan hutsa duzu: kubatarrak maitagarriak izan daitezke, eta gogaikarriak ere bai; eguzki betezko egunek zorabiatu arte kiskal zaitzakete (oharra: Fidel ez da zorabiatzen den bakarra), eta biharamuneko hurakanak etxe-zuloan giltzapeturik egotera behartu; munduko mokofinik mokofinena ere errenditu egingo zaizu *guanabana* delako fruituaren aurrean, eta txahala botako dizu hango hanburgesa likitsen lurruna sudurreratu orduko. Oi, ze ederra den automobil zaharren desfilea Habanako Vedado aldeko kale luze-zabaletan! Oi, ze higuingarria automobil horiei darien kiratsa!**

**Kubako egia berdaderoek hamaika alde daukate, eta beste hainbeste ertz, erpin eta azpildura. Egia horietako lagin bat ezkonberritan Kubara joan ziren Urliak eta Sandiak jakin eragin zidaten orain hurrengoan.**

**Ailegatu dira biak hotelera ilunkeran eta hara non aurkitu duten euren gela hankaz gora. Lapurrak. Dirurik ez dute aurkitu, baina erropak-eta, denak linpio. Soilik haginetako eskuilak, galtzontzilo zikinak eta erabili eta botatzeko foto-kamara utzi dituzte lapurrek gelan. Baina Urliaren Visa-Oroak miraria egin ditu Kuban, eta hurrengo 10 egunetan ez dira akordatu ere egin lapurretarekin, etxera bueltatu arte.**

**Errebelatu dituen argazkietako batek Urliaren arreta bereganatu du osoro; agertzen da ipurdi bel-beltz bat eta Urliaren haginetako eskuilatxoa ipurtzuloan sartuta, kirten gorria agerian.**

**Kontuak kontu, merezi du!**

# Gutunak

## El Salvadorrekin

El Salvadorren izandako lurrikaren kalteak jasan zituzten nekazaritzako familien alde antolatu dugun Larrialdi Kanpainari amaiera eman diogunez, idatzi honen bidez zuen eskuzabaltasuna eta gure erakundearekiko erakutsi duzuen konfiantza eskertu nahi dizuegu kolaboratzaile eta lagun guztiei.

Denon parte hartzeari esker, 28 milioi pezeta batu genituen, eta guztia Mikel Anduezari bidali genion zuzenean, eta diru horrekin premiazko zenbait laguntza bideratu ditu Tacuba eskualdean.

Bestalde, gure aldetik adierazi nahi dizuegu komunitate horien alde lanean jarraituko dugula (lehengo Kontu Korronteek ere zabalik jarraituko dute), gure ustez bizi izaten ari diren egoera oso larria baita eta gure lehen mundu honetatik laguntzen segi dezakegu eta.

GIPUZKOAKO OSCAR ROMERO SOLIDARITZA BATZORDEA
Bergara

## Euskalkixen zeatik ez?

Pozik irakurri gauen aurrekuen Mikel E.L.k *Goienkarian* idatzi auen kartie, eta eskertzen dou berak indako komentarixue, gu be horren aldekuak garelako. *Aretxagazeta* aldizkarixek "Boteprontoan" atala bertako euskalkixen idazten dauela aittaketan zauen han, eta horrek harrittu eitten auela. Gero, *Aretxagazeta* osue bizkaieraz zeatik ezingo litzakien idatzi galdeketan auen. *Aretxagazetako* batzordiek gai hori jorratu izen dau behin baino gehixautan.

Gure ustien, sarrittan gatxaua da bertako euskalkixen irakurtie, euskera batuan irakurtera ohittuta gazelako. Gainera, ondiokan ez dakou gure euskalkixen idatzi ahal izeteko oinarri garbirik. Dana dala, Badihardugu badabil Deba Ibarreko euskerie lantzen, eta lantxo hori bukatute dauenien, atal barrixek geure euskalkixen lantzen fango gare poliki-poliki. Baina, bitxartien, eztou uste aldizkari dana euskalkixen idaztie komeni danik, atal batzuetarako egokixaua da batuen idaztie danok ulerketako moduen.

ARETXAGAZETAKO ZUZENDARITZA BATZORDEA
Aretxabaleta

# Hemeroteka

## Batasuna eta Aralarri buruz

(...)

Oroz gain heien erranetan den itzelena —eta bi bider itzela— gainera, zera da: Aralarrek horrela jokatu duela "ezker abertzaleari min egiteko". Aralarrekook ez bide dugu bertzerik egiteko. Hek (HB, EH, Batasuna eta... etor daitezkeen izenak geroan), ote dira Euskal Herri osoko ezker abertzale guztia? Akaso beraiek al dute herri honen ezker osoaren monopolioa? Geure buruari min egin beraz? Izaitez ezker abertzalego osoa ez izateaz gain, Euskal Herriari hondamendi ikaragarria gauzatzen ari zaie. Azkenengo hauteskundeetako porrot izugarria kasu. Amildegira zuzen-zuzen zeramaten herri hau.

Eta zergatik nagusiki? Demokrazia ezagatik, hemen, gu denon aitaren etxean. Hots, euskal gizarte gehiengoa (ezker abertzalea barne) ez errespetatzeagatik, euskal populuaren aintzinean ez makurtzeagatik demokratikoki eta apalki. Hori bata. Eta bertzea, ETAtik aldentzeko gai izan ez zirelako (begiramen osoz errana izan bedi erakunde armatuarekiko), honetaz ere herriari arras muzin eginez. (...)

JULEN MADARIAGA,
Aralarreko kidea
Deia, 2001-07-08

## Iragarritako agurra

Zer adierazten du objektiboki Aralarrek? Zer berri? Aralarreko ordezkari publikoak Ezker Abertzaleko militante historikoak dira, historikoak, bizi osoa gehiengoak onartutako ildo politikoa kritikatzen eman dutelako, batzuek euren burua kanporatu ere egin zuten; beraz, ezer berririk ez alde horretatik. Berria, Batasuna prozesuak, euren ideiak baldintza berberetan zilegiztatzeko aukera eman diela izan liteke. Berritzat jo liteke baita ere, Aralarreko militanteak, gutxiengo kritikoa izatetik, gutxiengo txantajegile eta manipulatzailea izatera pasatu izana. (...)

VICTOR MANUEL RUEDA,
Batasuna prozesuko dinamizatzailea
Gara, 2001-07-11

## Batasunak erronka bota dio Estatuari

Batasuna izena hartu du HBren ordezko erakundeak, eta alderdi berriko zuzendaritza ikusirik kezka handiz ondoriozta daiteke Jarraitik datozen 30 urtetik beherako pertsona batzuen eskuetan dagoela; lagun horiek, ukabila jasota, marxismo-leninismo zaharkituenaren irudi betea dira. (...) Hortaz, eite iraultzaileko erakunde bat sortu da. Hori ez litzateke larria izango, demokraziarentzat dakarren arriskuarekin batera ez balego erakunde terrorista bat, hotz-hotzean krimenik doilorrenak egiteko lehergail.

EDITORIALA
El Mundo, 2001-06-25

## Tourra

(...)

Txirrindularitza maite dugu, Bernardo Ruizen garaitik eskolako mahai gainean ebakigarri epikoa bihurtu genuenok, eta ibilbideko handiak hori ziren, ibilbideko handiak, inork ez zielarik azalpenik eskatzen barrura sartzen zuten gasolinaz edo gasogenoaz, espainiarren kasuan. Orain txirrindularitzaren mistika galdu behar badugu, txirrindulariek aurpegia edo marka ez galtzeko hartzen duten lau pitokeria kimikorengatik, ez dakit ba nik zertan sinistuko dugun, Olinpoko podiumera igoteko, eta horrela, galtzaile zein irabazle izaera damaigun beste mundu horrekin komunikatzeko aukera, futbola eta txirrindularitza bezalako erlijio laikoetan bilatu dugun sinesgogorrok.

Ez zaie dopingaren kontrako kontrola egiten, ez enpresaburuei, ez Nazioarteko Batzorde Olinpiarreko kideei, ez Pique jaunari Ercros kasua zuritzen duenean, ez Jose Luis Morenori, ez Moncloako 1.500 poetei, ez "El Pais"eko zutabegileei, eta ez dut ulertzen zergatik tematzen den moral globalizatzailea txirrindulariekin, horrela ibilbideko handiak izatearen euren ezinbesteko izaera kentzen dietelarik.

MANUEL VAZQUEZ MONTALBÁN
El País, 2001-07-09

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

Giroa eta Tourra direla eta, dopinga gora eta dopinga behera aritzen dira komunikabideetan. Doping berba aipatu eta txirrindularitzarekin edo atletismoarekin lotzen dugu gehienetan. Ematen du gainerako kiroletan ez dagoela dopingik. Azken urteotan, goi mailako kirol gehienetan dopingaren aurkako kontrolak egiten hasi dira, baina zorrotzenak txirrindularitzan egiten dira. Kontrolak egiteko moduak eta dopingaren aurka egitean erabilitako moduak tropel osoaren jokaera jarri du zalantzan.

# Zer iritzi duzu antidoping kontrolari buruz?

## *Ez dugu ikusi nahi begi bistan dagoena*



JOXE ARANZABAL
*Arrasate Press*eko zuzendari ohia

Txirrindularitzaren pozoia dabilkit odolean. Espainiako Itzulia eta Eibarko Bizikleta gure etxe aurretik pasatzen zirenetik. Bahamontes eta Loroño ditut nire oroimenaren ganbaran, Fagor taldeko txirrindularien postalak, Tourra zuri-beltzean Musakolako saloian…, eta Tom Simpson-en heriotza.

Bernardo Atxagak besterik esango du, baina Simpson Mont Ventoux-en hil zen. Gure idoloetako bat zen Tom Simpson, geroago Balendin Uriona izan zen bezala. Errepidean hil ziren biak, eta, antza denez, drogen eraginpean.

Txikitandik bizi izan ditut, beraz, txirrindularitzaren lilura eta ilunak. Harrezkero, etengabeko kontraesanean bizi naiz. Bihotzez maite dut kirol hau, baina buruak esaten dit zerbait aldatu beharra dagoela. Ez baita normala irakurtzea azken Giroan xiringa zaparrada bat jausi zela hotel bateko leiho batetik, polizia bazterrak miatzera sartu zenean txirrindulariak zeuden hotel batean. Edo Festina taldeak modu industrialean antolaturik zuela dopinga, Virenque-ren garaian. Horretaz oso gutxi idazten den arren, eta hemen inon baino gutxiago, oso zabalduta dago txirrindularien artean dopinga barra-barra dabilen ustea.

Aldaketarik sakonena, baina, txirrinduzaleon buruetan egin beharko da. Ulertu beharko dugu larregi eskatzen diegula karreristei eta ezer hartzen ez duen atleta normal batek ezin dituela batezbesteko beldurgarri horiek egin hainbeste egun jarraian, halako oztopo izugarrian gainditu.

Txirrindularitzak ez du EPOren beharrik ikusgarria izateko. Seguru nago Pantani bera izango litzatekeela igotzailerik onena dopingik gabeko txirrindularien artean eta gaur egungo onenak izango liratekeela han ere bikainenak.

Txirrindulariak gizakiak dira, ez Olinpoko jainkoak. Egin dezagun, bada, txirrindularitza gizakion neurriko. Hori egiten ez bada, alferrik izango dira gaur egun egiten diren kontrol guztiak; denok ibiliko gara geure buruak engainatzen.

Ikasia beharko genuke Tom Simpson eta Balendin Urionaren ikasgaia.

## *Kontrolak bai… baina denentzako berdinak*



JOSE CARLOS VICENTE
*Ciclismo a fondo* aldizkariko kazetari ohia

Txirrindularitzan dabiltzan guztiek zerbaitetan errurik badute, dopingaren arloan euren interesak defendatzen ez jakitean daukate. Baten batek uste du Polizia ausartuko litzatekeela, partidu erabakior baten aurretik, Madril eta Bartzelonako futbolariei, goizaldeko ordu bietan ezusteko kontrola egiten? Ba hori gertatu zen Giroan. Eta baten batek uste du, Poliziak, Madrileko jokalariren batek debekatutako gaiak erabiltzen dituela susmatuko balu, talde osoa atxilotuko lukeela, 24 orduz inkomunikatuko lituzkeela, eta Raul, Figo, Zidane, Roberto Carlos eta besteei gorputza goitik behera arakatuko liekeela? Ba hori egin zieten Festinako txirrindulariei duela hiru urte.

Txirrindularitza, kontrol gehien egiten diren kirola da, eta *egindako kontrolak/positibo emandakoak* erlazioa txikiena den kiroletako bat, baina hala ere, fama txarra dauka. Argudio modura, positiboak aurkitzen jarraitu dutela esan dezakete, baina egia da era berean, hainbeste gogoz aztertzen ez dituzten kirolak badaudela.

Beste edozeren gainetik negozioa den goi mailako gaur egungo kirolean, dopingaren aurkako kontrola guztiz beharrezkoa da, baina denek jokatu behar dute arau berberen arabera.

Ezin dezakegu onartu, batetik, kirol edo lehiaketa jakinetan kontrolik ez egitea, edo Nazioarteko Batzorde Olinpiarrak edo Txirrindularien Nazioarteko Batzordeak zenbait produkturentzat hobetsitako neurrien desberdinak onartzea, eta, bestetik, kolpea hartu duelako, izterrean pomada eman duen txirrindularia drogazale modura hartzea.

Txirrindularitzan ez dago zalantza edukitzeko eskubiderik, eta gozokia lapurtzen duena hiltzailetzat jotzen dute, beste kirol batzuetan banku lapurrak bilatzen ez dituzten bitartean. Nor da txukunagoa, zikina dagoena garbitzen duena, ala erratza erabili ere egiten ez duena? Hori da txirrindularitzari jendaurrean erakustea falta zaiona, izan ere, garbitu, inork baino gehiago garbitzen du.

**"Txirrindulariak gizakiak dira, ez Olinpoko jainkoak. Egin dezagun, bada, txirrindularitza gizakion neurriko"**

**"Nor da txukunagoa, zikina dagoena garbitzen duena, ala erratza erabili ere egiten ez duena?"**

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## *Opor egunak denak jarraian ala urtean zehar sakabanatuta?*

## Gora eta Behera

**EUSKARAREN ERABILERA**

Euskararen erabilerak gora egin du azkenengo urteotan bai Arrasaten eta baita bailaran ere. Hori, berez, pozgarria da. Urteetan, hainbat erakunde eta elkartek, eta gizarteak oro har, egindako lanaren fruitua da.

**EUSKARAREN KALITATEA**

Gaur egun, batez ere gazteek, egiten duten euskara ez da hain ona edo jatorra. Berezkotasun hori galdu du. Euskaraz dakiten edo egiten duten ia erdiek ama hizkuntza gaztelera dutelako da hori. Oztopo bat daukagu hemen. Horregatik, hurrengo urteetarako erronka da hemen jaiotzen diren ume gehienek ama hizkuntza euskara izan dezatela.



JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA
Arrasateko Udaleko euskara teknikaria

## Koplak

### *Oporraldia*

Urteak eta urteak pasa
egun eta gau lanean,
gure gorputzak pozarren daude
oporraldiak heltzean.

Urtarrilean egiten dira
lan egutegi edarrak,
baina abuztua heltzerako
denak aldatu beharrak.

Lan ugariren aitzakiakin
egun gehiago lanera,
beraz murriztu egiten zaigu
disfrutatzeko aukera.

Aprobetxatu beharra dago
momentuan datorrena,
lanik gabeko eguna da eta
egunikan ederrena.

Abuztua iristear eta
guztiok planak egiten,
egutegian menpe gaudela
burutik ez zait joaten.

Ahal dena egin dezazutela
lana burutik kentzeko,
buruko miñik izan ez eta
oporretan gozatzeko.

ETOR SARASUA

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Iker Barandiaran (Asteko gaia), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko uztailaren 13a

# Datorren urtean izango da...

## Soraluzek 2-1 irabazi zion Aretxabaletari herri arteko pilota txapelketan

**Domeka goizean jokatu zuten Soraluzek eta Aretxabaletak herri arteko txapelketako finala, eta domeka goiz ahaztezin horrek txapeldun bat izan zuen: Soraluze. Aretxabaletarrek, zeukaten guztia eman zuten, baina plazentziarrek kadete eta gazte mailan erakutsitako nagusitasunari esker eskuratu zuten txapela.**

Domeka goizean, Deba arroko bi herriko bizilagunek Atano III.a bete zuten. Ez zen gutxiagorako. Izan ere, Aretxabaletak eta Soraluzek herri arteko finala zuten jokoan, eta herritarrek norgehiagoka hori hurbiletik bizi nahi izan zuten. Lehenengo partiduan, Soraluzeko bikotea jaun eta jabe izan zen. Txurruka gazteak nagusitasuna erakutsi zuen, eta bikote atxabaltarrak ezin izan zuen gauza handirik egin.

Gazte mailako partiduan izan genuen benetako ikuskizuna. Aretxabaletako bikotea derrigortua zegoen zeingehiagoka irabaztera, eta lortu ez zuten arren, ez zuten ez partidua merke saldu. Soraluzeko Iñaki Jauregik jarri zion partiduari erritmo bizia, baina Aretxabaletako atzelariak, Odei Oyonek, Atano pilotalekua zutik jartzea lortu zuen. Sekulako lana egin eta gero, markagailuak 16-18 erakusten zuenean etorri zen partiduko tantua.

Hamazazpi minutu iraun zituen, 244 pilotakada, eta Odeik etorri zitzaion guztiari eutsi zion, baina azkenean nekearen nekez ezin izan zuen tantua amaitu. Tantu horrek partidua eta txapelketa erabaki zituen, eta nagusien partidua tramite hutsean gelditu zen. Hala ere, Errasti anaiek ez zeukaten ezer oparitzeko, eta beste behin argi utzi zuten beraiei irabazteko ederki izerditu behar dela. Errasti anaiek lortutako garaipena, bertara hurbildutako atxabaltarrei eskaini zieten, eta Juan Mari Errastik, azken horien aita eta atxabaletarren ordezkariak argi utzi zituen gauzak: "Argi zegoen bigarren izango ginela. Orain bi urte laugarren postua eskuratu genuen, pasadan urtean hirugarren izan ginen eta aurten bigarren tokatzen zitzaigun. Datorren urtean txapela gurea izango da".

XABI URZELAI




Aretxabaltarrek, eskuman, ezin izan zieten plazentziarrei irabazi. LOREA AGIRIANO

# Eskoriatzako autokrosa, zirkuitu berrian

## Fagor Ederlanen ordez, Almen ikastolaren ondoan jokatu zen

**Orain arte Fagor Ederlan aurrean zegoen zelaian egin izan da autokros lasterketa hau, baina bertako lanak direla eta, antolatzaileek beste zirkuitu bat egin behar izan dute. Ez dute oso urrun joan behar izan. Izan ere, zirkuitu berria zaharretik gertu dago, Almen ikastolaren ondoan.**



Autokrosa ikusteko mila lagunetik gora bildu ziren. LOREA AGIRIANO

Giro ezin hobea izan zen domekan Eskoriatzako autokros proban. Mila pertsona baino gehiago hurbildu ziren zirkuitu berrira, San Pedroko bosgarren autokros txapelketa ikustera.

Guztira 80 autok hartu zuten parte, gehienak Debagoienekoak, baina Gernika, Zumarraga, Elorrio eta Durangotik ere animatu ziren pilotu batzuk proba honetan parte hartzera.

Txapelketako azkarrena Ivan Guridi oñatiarraren Renault 11 izan zen. Bigarren postua Iñaki Ganbrak eskuratu zuen Ford Fiesta batekin, eta podiumean hirugarrena Ivan Diaz de Gereñu eskoriatzarra izan zen, Citroen BX batekin. Eskoriatzako pilotuen lasterketan, Iban Aranburuzabalak irabazi zuen Golf GTI batekin.

Txapelketa Eskoriatzako motorzale elkarteak antolatu zuen. Debagoienean, seguruen baimenen arazoengatik, horrelako bi proba bakarrik izaten ditugu. Eskoriatzakoa eta Oñatikoa.

X.U.

## Kirolabur

### MENDIA/IÑURRATEGI

Alberto Iñurrategi eta Jon Beloki Gasherbrum I mendiko tontorrera heldu ziren domeka goizean. Aretxabaletarrarentzat oso igoera garrantzitsua izan da, izan ere, berriz ere Himalaiara joateaz gain, orain urtebete bere anaia hil zen ondoko mendia igo du. Bidean anaiaren pioleta aurkitu zuen Albertok, eta bere esanetan, horrek gora egiteko indarrak eman zizkion. Hamalau zortzimilakoak egiteko Annapurna igotzea besterik ez zaio gelditzen Albertori.

### OÑATI/TOURRA

Oñatiko Aitor Garmendia eta Ion Odriozola zale taldeek autobusak antolatu dituzte uztailaren 21 eta 22an Tourra ikustera joateko. Bidaia egiteko 15.000 pezeta ordaindu beharko dira, eta izena emateko eguna uztailaren 16an izango da. Irteera uztailaren 20an izango da, egubakoitzean, arratsaldeko seietan, eta lekuak mugatuak izango dira, beraz argi ibili!

### OÑATI/MOTORRA

Zapatuan, hilak 14, Udanako kotxe igoera jokatuko da Udanan. Entrenamendu saioak 16:00etan hasiko dira eta jarraian bi txanda ofizialak jokatuko dira. Bergara Racing taldeak antolatzen duen proba honetan 40 partaide inguru izango dira. Aitor Zabalea dugu faborito nagusia. Ibilbidea 4.980 metrokoa da. Sarrerak 1.000 pezetan salduko dira.

### ARRASATE/ JONATHAN PEREZ

Atleta arrasatearrak urrezko domina lortu zuen aurreko asteburuan. Mendizorrotzan izandako proban, 4,60 metroko jauzia egin zuen pertikaz, eta bere marka hobetu zuen. Printzipioz, urrezko domina eskuratzen zuenak, oraingo asteburuan Katalunian jokatuko den Espainiako txapelketara joateko txartela eskuratuko zuen, baina gero gauzak aldrebestu egin ziren. Azken orduan eman diote baiezkoa, eta atleta arrasatearra Katalunian izango da oraingo asteburuan Euskadi ordezkatzen.

### ELGETA/ TXIRRINDULARITZA

Oraingo domekan Euskadiko Mendi Bizikletako XVII. Txapelketa izango da. Txapelketa hau Elgeta txirrindulari elkarteak antolatu du, eta afizionatu mailako Euskadiko txirrindulari onenak elkartuko dira. Proba goizeko hamarretan hasiko da eta parte hartzaileek 122 kilometroko ibilbidea egin behar

*Podiuma*

# Ane Miren Fernandez |GIMNASTA|

Ekainaren 29tik uztailaren 1era Espainiako gimnasia erritmikoko banakako txapelketa jokatu zen Valentzian. Partaideen artean Ane Miren Fernandez bergararra (17 urte) izan zen, eta bosgarren postuan sailkatu zen. Horrez gain, pilotako ariketan, zilarrezko domina eskuratu zuen, eta uztaiarekin eta mazoekin ere finalera iritsi zen. Orain, taldekako txapelketak gertatzeari ekingo dio Ipuruako taldekideekin batera. Ane Miren 11 urterekin hasi zen gimnasia egiten, eta azken hiru urteak Eibarko Ipurua taldean igaro ditu.



Ane Miren Fernandezek zilarrezko domina lortu zuen pilotarekin.

**Zer da garrantzituagoa, sailkapeneko bosgarren postua ala pilotarekin lortutako zilarrezko domina?**

Sailkapen orokorreko bosgarren postuari garrantzi handiagoa ematen diot. Lehen aldia zen Espainiako banakako txapelketan parte hartzen nuela, gazte mailan, eta egia esateko, ez nuen espero horren emaitza ona lortzea. Lehen hamarren barruan egoteko aukerak nituela banekien, baina sorpresa atsegina izan da bosgarren postua eskuratzea. 28 neska izan ginen lehian eta oso pozik nago lortutakoarekin.

**Zelako txapelketa egin zenuen?**

Lehenbiziko egunean soka eta uztaiko ariketak egin behar izan nituen, eta nahiko urduri ibili nintzen. Sokarekin ez nuen lortu finalera pasatzea, eta ariketak amaitutakoan ez nengoen oso pozik. Bigarren egunean, berriz, gauzak hobeto atera zitzaizkidan pilotarekin eta mazoekin. Bietan finalean sartu nintzen, eta horietan eduki nuen puntuaziorik onena. Sailkapen orokorrean ere aurrera egitea lortu nuen, zazpigarren postutik bosgarrenera, hain zuzen. Pilotan zilarrezko domina eskuratu nuen, mazoekin laugarrena izan nintzen, uztaiarekin zazpigarrena eta sokarekin, berriz, hamargarrena.

> **“Lehen hamarren barruan egoteko aukerak nituela banekien, baina sorpresa atsegina izan da Valentzian bosgarren postua lortzea”**

> **“Otsailetik hona hiru orduko prestaketa saioak egin ditut egunero Espainiako txapelketa gertatzeko, baina merezi izan du”**

**Gogorra egin zitzaizun txapelketa gertatzea?**

Bai, nahiko gogorra izan da baina merezi izan du. Batez beste, otsailetik hona hiru orduko prestaketa saioak egin ditut egunero, Susana Prieto eta Tania Nagornaya nire entrenatzaileekin. Kale egin dudan egunetan, biharamunean sei orduz entrenatzen nintzen batzuetan.

**Hamaika urterekin hasi zinen gimnasia erritmikoan. Zein da gimnastа batendako adinik egokiena?**

14-15 urte, beharbada. Hala ere, nire adinarekin esperientzia handiagoa duzu, eta hori ere kontuan hartzekoa da. Momentuz jarraitzeko asmotan nabil. Datorren urtean, aurten Valentzian lortutakoa hobetu nahiko nuke.

**Horren gogorra da gimnasia erritmikoa?**

Kanpotik begiratuta bai, baina barruan zaudela ez duzu berdin ikusten. Egia da lagunekin ezin dudala nahi beste ibili, eta jaietan eta horrelakoetan ez naizela askotan egoten. Baina asko gustatzen zait gimnasia eta ez daukat kexarik. Dieta? Nik ez dut dietarik egiten. Txapelketaren aurreko astean gehiago zaintzen naiz, baina denetik jaten dut.

**Hemendik urte bukaera bitartean taldekako txapelketak dituzu. Zein asmo daukazue?**

Taldekako lana bikoitza da, ariketak egiten ditugun bost gimnastok oso ondo sinkronizatuta egon behar dugulako, guztioi atera behar zaigu ondo. Horrek izugarrizko lana eskatzen du. Urria eta abendua bitartean, Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako txapelketak izango ditugu, eta uste dut hor aurrean izan gaitezkeela.

**Oporrik badaukazu?**

Orain lasaiago entrenatzen ari naiz, eta abuztuan 15 eguneko atsedena hartuko dut.

EDU MENDIBIL



## Bizkorrak txapeldun Kataluniako Kopan

Arrasateko Bizkorrak futbol taldeak ekainaren bukaeran jokatutako kadete mailako Kataluniako Kopa irabazi zuen. Bizkorrak taldea 15 eta 16 urteko gazteek osatzen dute, eta ez da lehen aldia nazioarteko txapelketa bat irabazten dutena. 1997an Donosti Cup txapelketa eskuratu zuten eta iaz Italian jokatutako Rimini Cup ere irabazi zuten. Katalunian ez zuten partidurik galdu, ez zieten gol bat ere egin eta Julen Zaitegik sartu zuen gol gehien txapelketan. /E.M.

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Mariano Altube
### Txirrindularia




Mariano Altubek (eskuman) bi urtez korritu zuen afizionatuetan.

**15 urterekin hasi zen lehiaketetan**

**Gazte mailako Espainiako ziklo-kros txapelduna**

**Soldadutzara joan eta ziklismoari utzi zion**

Goitikua baserrikoa, 14 urterekin Ulman lanean hasi zen Mariano Altube. Ordurako Oñatitik Urtiagainerako tartea bizikletan atzeraka igotzeko gai zen, eta Luis Mari Etxeberriak horren berri izan zuenean, lehiaketetan parte hartzeko animatu zuen: “astebetez entrenatu eta Eibarren izan nuen lehenbiziko karrera. Aurrekoekin batera igo nuen Azkarate, baina gero erori egin nintzen jaitsieran. Hala ere, aurrean sartzea lortu nuen”. Aloña Mendiko taldearekin korritu zuen gazte mailan, eta errepidea eta ziklo-krosa tartekatu zituen: “ziklo-krosean hobeto moldatzen nintzen. Antxintxika gutxi egiteko zirkuitu aldapatsuak gogoko nituen”. Gazte mailan ziklo-kroseko karrera mordoa irabazi zituen: “1975ean, Ikaztegietako Intxaustik eta biok irabazi genituen karrera gehienak”. Urte hartan, Ordizian jokatutako Espainiako ziklo-kros txapelketa irabazi zuen Altubek: “oroitzapenik onena Espainiako txapelketa irabazi nuenekoa da. Orduan ziklo-krosak jarraitzaile asko zituen, eta Oñatitik 50 bat lagun etortzen ziren karreretara ni animatzera”.

Afizionatuetan, Transportes Uriarte taldean aritu zen. Karrera bakarra irabazi zuen, Ergobian, eta lehenbiziko urtean Afizionatuen Challengean 6. sailkatu zen. Batez ere igotzailea zen. 1976ko Arantzazuko igoeran hirugarrena izan zen, Juan Fernandez eta Juan Luis Juarezen atzetik. Laugarren Marino Lejarreta heldu zen. Soldadutza egiteko El Ferrolera joan behar izan zuen, eta bueltan txirrindularitzari laga zion. Lagun bati apustua irabazi zion bizikleta lagatakoan: Mariano atzeraka azkarragoa izan zen laguna baino Arantzazura igotzen. Aurten ere Tourrera joango da lagunekin, Pirinioetara. Bere faboritoa Armstrong da eta Jon Odriozolak etaparen bat irabaztea nahi du. /E.M.

> ***“Oroitzapenik onena 1975koa da, Espainiako gazte mailako ziklo-kros txapelketa irabazi nuenekoa. Orduan ziklo-krosak jarraitzaile asko zituen”***



Mariano Altube • Araotz • 1956


ENEKO AZKARATE

# *Juan Martin Elexpuru*

ARALAR TALDEKO KIDEA

## "Ezker abertzalea zatituta zegoen lehen ere. Orain, dibortzioa legeztatu besterik ez da egin"

### MILITANTEEN ZENTSOA

**"Gure ustez erakunde batean ezinbestekoa da militanteen zentsoa. Eta militanteen batzarretan hartu behar dira erabakiak, ez beste edozein instantziatan"**

### POLITIKAGINTZA

**"Nire politikarako ibilbidea ez da oso luzea izango, baina honetan nabilen bitartean ahalegintxoa egingo dut"**

Juan Martin Elexpuru (Ubera, 50 urte) ezker abertzalean ibili da beti. 1973an hasi zen politikan, hain justu EAS alderdian, gerogo EHAS eta ondoren HASI izan zen alderdian. Nahiz eta HBn jarraitu duen oraintsu arte, kultura, euskalgintza eta literatura izan dira bere lan arloak. Egun hauetan Aralar taldeko kide bezala agertu da komunikabideen aurrean.

ENEKO AZKARATE

**Zer dela eta Aralarren?**

1996tik 1998ra bitartean, Oldartzen prozesuarekin kezkatuta zegoen talde bat sortu zen Nafarroan. Su-etena etorri zenean, taldea desegin zen. Su-etena hautsi ondoren, berriz elkartzen hasi ziren eta Aralar izena hartu zuten. Batasuna prozesuan parte hartu du ponentziak aurkeztuz. Ni neu, joan zen udan jarri nintzen harremanetan. Prentsan iritzi-artikulu kritikoak-eta idazten nituen, baina pentsatu nuen ez zela nahikoa, zeozer gehiago egin behar zela...

**Batasunaren helburua ezker abertzalea batzea izan da. Prozesuak berak eta orain jaio berri den taldeak helburu hori bete dutela uste duzu?**

Ez. Asmoa oso ona zen, baina su-eten garaian eta su-eten garairako pentsatua zegoen. Oso ondo diseinatuta zegoen, oso ikuspegi zabalarekin. Su-etena hautsi zenean, ostera, argi ikusten zen asmoak ezin zitezkeela aurrera eraman. Horrelako eraso armatu baten erdian ezin ziren bildu borroka armatuarekin kritiko zirenak.

**Zergatik erabaki du Aralarrek erakunde berrian, Batasunan, ez sartzea?**

Arrazoi asko daude, baina funtseskoena borroka armatuarekiko jarrera da. Aralarrek argi ikusten du une honetan kaltegarria dela herriarentzat, eta ezker abertzalearentzat bereziki. Herri guztiek dute bere burua defenditzeko eskubidea, baita armekin ere, baina une honetan mesede baino kalte handiagoa egiten dio bide horrek. Eta hori nabarmen geratu da hauteskundeetan. Su-eten garaian ezker abertzaleak ikaragarri igo zuen. Berriz, su-etena hautsi ondorengo hauteskundeetan %40 jaitsi da. Horretaz gain, badira beste faktore batzuk. Esaterako, gure ustez erakunde batean ezinbestekoa da militanteen zentsoa. Eta militanteen batzarretan hartu behar dira erabakiak, eta ez beste edozein instantziatan. Estrategiari dagokionez, autodeterminazio eskubideaz baliatu eta bide politikoak erabili behar dira. Bide politikoen artean, desobedientzia zibilak, adibidez, paper inportantea joka dezake.

**Aralarrek ezker abertzalearen zatiketa ekarri duela diote batzuek. Hala da?**

Ezetz esango nuke. Ezker abertzalea zatituta zegoen lehendik ere, eta orain dibortzioa legeztatu besterik ez da egin. Jende askok galduta zuen ilusioa, batzuek Oldartzenen garaitik eta beste batzuek oraintsu. Eta gainera, sektore zabalak botoa beste aukera batzuei ematen hasita daude. Horrela, desagertzeko bidean ikusten genuen ezker abertzalea indar politiko erabakigarri gisa. Sektore horietara ailegatzea da Aralarren gogoa, eta ilusioa berpiztea. Batasunean gustura daudenek edo gauzak barrutik egin behar direla pentsatzen dutenek, jarrai dezatela bertan lanean. Zorterik onena opa diegu. Ezberdintasunak ezberdintasun, ez genuke problemarik izan behar egunerоko lanean elkarrekin jokatzeko.

**Hala ere, Aralarrek sortu du HBren lehenengo zatiketa...**

Ez gara hasiko zatiketa nork sortu duen eztabaidatzen. Orain arte, konforme ez zeudenak etxera joaten ziren eta kito. Zatiketak mingarriak izaten dira beti, eta sortu diren erreakzioek ez gaituzte harritzen, nahiz eta zenbait lider politiko eta sindikalek ez duen oso maila ona erakutsi.

**Hartu duzuen bideagatik, leialtasun eza leporatu dizuete Batasuneko batzuek.**

Leialtasuna zerekin? Lehenengo, bakoitzak bere ideiekin izan behar du leial, eta Aralar izan da. Askoz erosoagoa da ezer ez esan, dena laga, eta hor konpon. Pentsa daitekeenez, burukomin asko pasatu ondoren eman da pausoa.

**Nork ordezkatzen du ezker abertzalea, Batasunak ala Aralarrek?**

Ezker abertzalea Batasuna eta Aralar baino askoz ere zabalagoa da, zorionez. Hor daude AB, Zutik, Batzarre; EA eta ELAko batzuek ere ezker abertzalekotzat dute burua; gero sindikatuak, LABez gain, STEE, ESK, EHNE... Eta batez ere herri mugimenduak: euskalgintza, intsumisioa, lurraren defentsa, desobedientzia zibila, sexu askapena, internazionalistak, errepresioaren aurkakoak, eta abar. Eta, horrez gain, inon sartuta ez dagoen jendea, baina ezkerreko eta abertzale sentitzen dena. Ezker abertzalea Euskal Herriko sektorerik dinamikoena da, zalantzarik gabe.

**Aralar Nafarroatik sortutako ildo edo taldea da. Zer indar dauka gainerako herrialdeetan?**

Nafarroan sortu zen Aralar eta han dauka eragin handiena. Beste herrialdeetan ere badira taldeak, baina oraindik hasten gaude. Berria jakin zenetik jende mordoa ari zaigu inguratzen, eta honek beharra zegoela adierazten du. Politikan ideiak argi izatea eta jendearen sentimenarekin konektatzea da garrantzitsuena, eta uste dut bide onetik goazela. Esan beharrik ez, ateak zabalik daudela... eta ez dela nahikoa izaten lagunartean jardunean jardutea...

**Noiz egituratuko da erakundea?**

Udazken aldera hasiko gara horrelako gauzak pentsatzen. Orain lehen urratsa ematea zen inportanteena, eta hori egina dago. Beste guztia erabakitzeko dago. Ez dugu presaka ibili nahi. Behetik gora egituratu nahi dugu erakundea. Ezkerreko erakunde zabal eta moderno bat egiteko aukera dago eta merezi du gauzak ondo egiteak.

**Garrantzitsuena pausoa ematea izan dela esan duzu. Baina, zergatik orain eta ez hauteskundeen aurretik, esaterako?**

Gauzak barrutik aldatzeko itxaropen izpi bat genuen artean. Mayor Oreja lehendakari izateko arriskua zegoen, eta zera eskatu genion EHri: lehendakari abertzalea ateratzea ziurta zezala, eta Parlamentura normaltasunez joan zedila. EHk ez zigun baietzik erantzun eta hautagaiak aurkeztea aztertu genuen. Hobeto pentsatu ondoren, eta bazterrak gehiago ez nahastearren, atzera egin genuen.

**Zein da Aralarren ildo ideologikoa?**

Batetik, independistak gara. Hori bai, hiru errealitate ezberdin ikusten ditugu: Nafarroa, Autonomia Erkidegoa eta Iparraldea, eta bakoitzaren erritmoak eta berezitasunak kontuan hartu behar dira. Eta bakoitzak izan behar du erabakitzeko ahalmena. Nazio proiektu erakargarri bat egiten badugu, ziur gaude epe erdira euskal nazio batu bat ikus dezakegula. Orduan ere, nire iritziz, estatu konfederala izan daiteke egokiena, herrialde bakoitzaren nortasuna babestuko duena. Bestetik, ezkerrekoak eta sozialistak gara. Sozialismo berri bat asmatzen jakin beharko dugu, orain arteko ereduek porrot egin baitute.

**Iparraldean kritikoak agertu dira Batasuna prozesuarekin.**

Bai. Han ABko gehiengoa ez da Batasunean sartu. Gainera, Batasunak arrisku bizian jarri du lehendik lortuta zegoen batasuna. Nik uste dut prozesua oso negatiboa izan dela Iparraldearentzat.

**Bi urte barru dira udal hauteskundeak. Zer espero duzue?**

Bi urtean gauza asko gerta daiteke. Baikorrak izanda, pentsa dezagun egoerak onera egingo duela, eta Batasuna, Aralar eta ezker abertzale osoa batera aurkeztuko dela. Zoragarria izango litzateke.

**Zu zeu kargu publikoren bat hartzeko prest egongo zinateke?**

Argi daukat ez naizela politikarako jaioa. Beste alor batzuetan dago nire lekua. Pentsatzen dut nire politikako ibilbidea ez dela oso luzea izango, baina honetan nabilen bitartean ahalegintxoa egingo dut. Esker txarreko langintza honetan murgildu banaiz, kontzientzia arazo bategatik izan da.

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko uztailaren 13a

Kultura eta Aisialdia

Uztailaren 13tik 20ra


# Antzuolako Mairuaren Alardea

Antzuola aste honetan ari da bere jai nagusiak ospatzen. Eta horien barruan, badago besteak baino ekitaldi nabarmenagorik: zapatuan egingo duten Mairuaren Alardea.

Arratsaldeko 6ak aldera hasiko da ekitaldia. Une horretan, denboran atzera egingo dugu, eta sasoi baten Antzuolan eta Euskal Herri osoan egiten zuten ohitura ikusteko aukera izango dugu: armen alardea. Hainbat pertsonaia ibiliko dira Antzuolako kaletatik gora eta behera: soldaduak, zuriz jantzita, eskopetekin; haien burua; danborrariak eta txistulariak; jenerala, Alardeko buruzagia; eta mairua. Baina horiek bezain garrantzitsuak dira alardean jotzen duten partitura, eramaten duten bandera, jeneralak egiten duen berbaldia, eta horren tarte baten abesten dituzten bertso batzuk.

Jai folkloriko ikusgarria da Mairuaren Alardea, baina bere osagai guztiak ez dira folklore hutsa. Antzuolak bizi-bizi gordetzen ditu bere historia eta artea, eta horiekin biekin lotura du Mairuaren Alardeak. Hala ere, ospakizun askotan gertatzen den bezala, hemen ere ez dago jakiterik oroimena non bukatzen den eta irudimenak non hartzen dion txanda. Izan ere, jai hori Erromantizismo garaian hasi ziren ospatzen; sasoi horretan, XIX. mendean, antzinako kontuen eguneratzea aldarrikatzen zuten. /12

LEIRE KORTABARRIA



GOIO ARANA / ARGAZKIA: LAMIA

Jaia | Antzuolako Mairuaren alardea

# Mairuaren alardea: "Antzuolarentzat onra eta gloria"



MAIRUAREN ALARDEA IZANGO DA ZAPATUAN ANTZUOLAN, 920. URTEKO GUDU BATEN OROIMENEZ

**Historiak eta kondairak bat egingo dute zapatu honetan Antzuolan. Orduan, uztaileko hirugarren asteburuan urtero egiten duten bezala, antzuolarrek Euskal Herriko antzinako tradizio bat berpiztuko dute: armen alardea.**

Euskal Herriak, Foruei esker, bere miliziak antolatzeko ahalmena zuen. Milizien oinarria herriko miliziak ziren. Urtean behin, herri guztietako alkateak 18 eta 60 urte arteko gizonei deia egiten zien plazan elkartu eta armak begiratzeko, gudariak zenbatzeko, taktika berriak ikasteko... 1876 urtean, ordea, Euskal Herriak Foruak galdu zituenean, Espainiako araudi militarra jaso genuen, eta alardeak egiteko premia desagertu egin zen.

Gaur egun, gudu garrantzitsu baten parte hartu izan duten herriek egiten dute alardea; Antzuola da horietako bat. Valdejunquerako gudua da gogoratzen dutena.

**BI ZATI**

Antzuolako ospakizunak bi zati ditu: lehenengo, gudariek bilera eta armen erakustaldia egiten dute; zati horretan, azpimarratu behar dira musika eta ikurrina. Espainiako musika militarren bildumako pieza esanguratsu bat jotzen dute: *Marcha de Fusileros para Pífanos y Tambores de Espinosa. Música de Ordenanza de Carlos III* delakoa. Hipotesi batek esaten duenez, musika hori jotzen zuten sasoi bateko alardeetan, eta hori hala balitz, Antzuola da hori jotzeari eutsi dion herri bakarra.

Horrez gain, bandera bat ere erakusten dute Alardean, urre kolorekoa, gurutze gorri handi batekin. Alardeko ikurrina herriko ikurrina ere bada, eta bertan agertzen diren ikurrek badute bere esanahia Valdejunquerako guduaren azalpenean.

Gudu horren berri zabalago Alardearen bigarren zatian izango dugu, jeneralaren berbaldiari esker. Gertakari historiko horren oroimenak ematen dio izaera berezia Antzuolako alardeari; eta gertakizun hori dela-eta agertzen da mairuaren, Abd al-Rahmán III erregearen, pertsonaia. Guduko galtzailea denez, preso eramaten dute, eta hala agertzen da baita Antzuolako armarrian ere.

**VALDEJUNQUERA**

Valdejunquerako gudua 920 urtean izan zen, Salinas de Oro eta Muez herri nafarren arteko mugan. Historiak dioenez, errege nafarrek kristauen laguntza eskatu zuten Abd al-Rahmán menperatzeko, eta, besteak beste, antzuolarrak joan zitzaizkien errege nafar kristauei laguntzera. Historiako atal horretaz berba egiten du jeneralak. Testu horren zatirik handiena 1745etik gorde da, lehenengo aipamena 1629koa izanik.

Diskurtsoaren tarte baten, Jose Mari Iparragirre kantariak 1878an idatzitako bertso batzuk entzuten dira; horietan, euskaldunek nafarrei emandako laguntza goraipatzen da, eta bukaeran, Nafarroarekin anaitasunak aurrera egin dezan eskatzen zuen Iparragirrek, "laurak-bat" delakoa, alegia.

**"SEKULAKO JIPOIA"**

Kontua da Mairuaren Alardean euskaldunak garaile moduan agertzen direla. Antzuolako armarrian, arerioen erregea kateatuta agertzen da, eta banderan, mairuek kristauei ostutako ikur batzuk agertzen dira, antzuolarrek kristauendako berreskuratutakoak. Baina badirudi gauzak bestela gertatu zirela: "Euskaldunok sekulako jipoia jaso zuten Valdejunqueran, eta buruzagiaren berbaldian hala esaten da: gudua galdu eta gero, esaten du", dio Iñigo Ramirez de Okariz adituak.

Aldaketa horrek badu azalpenik. Mairuaren Alardearen jaia 1880 inguruan hasi zen ospatzen, Europan Erromantizismoa puri-purian zegoenean, alegia. "Sasoi bateko usadioak biziberritzearen aldeko mugimendua piztu zen. Horren barne, herri bakoitzak bere historiako gertakari bereziak nabarmendu zituen. Antzuolaren kasuan, Valdejunquerako gudua armarrian eta banderan islatu zen", azaltzen du Ramirez de Okarizek. Horra hor Mairuaren Alardea: literaturak apaindutako Historiaren oroimena.

LEIRE KORTABARRIA




Deskontuak nahi dituzu?
**Edo BENETAKO** preziorik onena?

*Hasieratik preziorik onena nahi baduzu, HALCON BIDAIETAN baino ez duzu aurkituko.*




PREZIO ESKLUSIBOAK, UDA!!

IRTEERAK BILBOTIK

**KANARIAK** (7gau)

| PUERTO DE LA CRUZ | Hilabetea | Halcon-en prezioa | Beste agenciak |
|---|---|---|---|
| Orotava hotela**** (ME) | Uztaila | 75.000 | 81.100 |
| Orotava hotela**** (ME) | Abuztua | 97.000 | 110.300 |
| TENERIFEKO HEGOALDEA | | | |
| Park Troya hotela**** (ME) | Uztaila | 74.600 | 80.700 |
| Park Troya hotela**** (ME) | Abuztua | 94.000 | 107.200 |
| LANZAROTE | | | |
| Playa Dorada hotela**** (ME) | Uztaila | 77.000 | 85.200 |
| Playa Dorada hotela**** (ME) | Abuztua | 109.500 | 116.800 |

**BALEARRAK** (7gau)

| PALMA MALLORCAKOA | Hilabetea | Halcon-en prezioa | Beste agenciak |
|---|---|---|---|
| Sol Pinos hotela** (MO) | Uztaila | 53.400 | 60.500 |
| Sol Pinos hotela** (MO) | Abuztua | 75.700 | 87.600 |
| EIVISSA | | | |
| Fiesta Tanit hotela** (DB) | Uztaila | 116.900 | 133.200 |
| Fiesta Tanit hotela** (DB) | Abuztua | 118.100 | 140.300 |
| MENORCA | | | |
| Almirante Farragut hotela***(ME) | Uztaila | 109.200 | 118.500 |
| Almirante Farragut hotela***(ME) | Abuztua | 131.400 | 146.600 |

IRTEERAK MADRILDIK

**DOMINIKAR ERREP.**

| PUNTA CANA (7 gau) | Hilabetea | Halcon-en prezioa | Beste agenciak |
|---|---|---|---|
| Fiesta Bávaro hotela*****(DB) | Uztaila | 162.200 | 171.100 |
| Fiesta Bávaro hotela*****(DB) | Abuztua | 190.400 | 201.100 |
| PUERTO PLATA | | | |
| Fun Tropicale&Fun Royale***(DB) | Uztaila | 129.900 | 161.200 |
| Fun Tropicale&Fun Royale***(DB) | Abuztua | 151.400 | 173.700 |
| JUAN DOLIO | | | |
| Barcelo Embassy hotela*** (DB) | Uztaila | 131.000 | - |
| Barcelo Embassy hotela*** (DB) | Abuztua | 132.300 | - |

**KUBA** (7gau)

| HABANA | Hilabetea | Halcon-en prezioa | Beste agenciak |
|---|---|---|---|
| Deauville hotela*** (OG) | Uztaila | 128.200 | - |
| Deauville hotela*** (OG) | Abuztua | 143.600 | - |
| HABANA/VARADERO | | | |
| Deauville h.***/Oasis (OG/DB) | Uztaila | 140.400 | - |
| Deauville h.***/Oasis (OG/DB) | Abuztua | 152.800 | - |

**CANCUN (Mexiko)** (7gau)

| | | | |
|---|---|---|---|
| Club Playacar hotela**** (DB) | Uztaila | 190.600 | 208.400 |
| Club Playacar hotela**** (DB) | Abuztua | 211.000 | 223.400 |

IRAILEAN ETA URRIAN ERE BAI

*...eta, gainera, TUNISIA, PRAGA, TURKIA, EUROPA...GALDETU!!*

OHARRA: PREZIOAK 2001eko OPORRETARAKO FOILETO ESKLUSIBOAN OINARRITUTA.
BARNE: HEGAZKINA, LEKUALDATZEAK, HOTELA, OTORDUAK KASU ETA ASEGURU BAKOITZAREN ARABERA.
TASAK KANPO. GALDETU SASOIEI ETA HILABETE BAKOITZEKO EGUN ZEHATZEI BURUZ.

HALCON BIDAIAK

Informazioa eta Erreserbak: 902 300 600







## Genaro Laskurain
### Eskopeteroen buru

Orain 21 urtetik parte hartzen du Genaro Laskurain antzuolarrak Mairuaren Alardean. Beteranoenetariko bat da. Eskopeteroen buruarena egiten du, eta berari dagokio pertsonaia hori antzezten lehenengoa izatearen ohorea: "Ni Alardean hasi nintzenean, hainbat aldaketa izan ziren, eta eskopeteroen buruaren pertsonaiarena izan zen horietako bat", diosku. Bere lanetariko bat armak daramatzatenei aginduak ematea da: generalak armen errebista pasa aurretik, Genarok ematen die "firmes" agindua. "Eskaini zidatenean, duda-mudatan ibili nintzen, baina gerora, pozik ibili naiz. Hala ere, ordezkoa topatzen hasi beharko dut laster", onartzen digu. Batik bat, herriaren harrera eskertzen du: "Jendeak ez luke onartuko noizbait Alardea ez egitea".







## Salvador Peña
### 30 urte mairuarena

Mairua da alardeko protagonista nagusia. Eta, mairuarena Salvador Peñak egiten du. Urte mordoa daramatza, gainera, paper hori egiten, aurtengoarekin 30, hain justu. Salvador Peña *Mañua*, Zaragozako Ateca herrikoa da, 69 urte ditu eta 1960 urte inguruan etorri zen Antzuolara. Hainbeste urtetan paper bera anteztu duenez, ez dauka entsegu beharrik, ondo ikasita dauzka-eta egin beharrekoak. Kapitainak, hala ere, urtero gogorarazten ei dio zer egin behar duen. "Kapitainak zera esaten dit: 'nik deitzen zaitudanean astotik jaitsi; hiru galdera egingo dizkizut...', dena azaltzen dit, gogorarazteko, eta kitto" diosku. Alardearen eguna ailegatzen denean urduri jartzen da, baina gustura egiten du. Berak dioen bezala, "botatzen nauten arte segituko dut".

ARGAZKIAK: LAMIA / ANTZUOLAKO UDALA

# Kaleratu berriak

...an Arantzabal

**...LDIZKARIA** | *Hilabetekaria*



**ARTEZ**
...te eszenikoen aldizkaria
...tez Blai K.E.
112 orrialde
300 pezeta

Aldizkari hau urteko sasoirik interesgarrienean ateratzen da. Oraintxe daude Euskal Herriko kaleak antzerkiz, musika emanaldiz eta abarrez beteta. Beste kultura batzuetara gerturatzeko aukera ematen digu Artezek. Aldizkari honek horrexetan lagundu dezake: kale antzerkien kritikak, emanaldien nondik norakoak, agendak... Aldizkariak duen informazio guztia pilatzen zebilen, eta orain, sekula baino diseinu zainduagoarekin asko argitu da, eta irakurleen begiek eskertuko dute. Hitz batean, arte eszenikoen gosez dabilenarentzako aldizkari bikaina.

**ALDIZKARIA** | *Denetarikoa*



**NABARRA**
Hilabetekaria
Nafarroako aldizkaria
52 orrialde
500 pezeta

Zenbaki hau hirugarrena baino ez da. Izenak berak adierazten duen moduan, batez ere Nafarroaren gaineko kontuak ditu irakurgai. Zenbaki honetan Udako Euskal Unibertsitatea dute aipagai. Argitaratzaileek dioten moduan, UEUren ikasgeletatik pasatu diren ikasle eta irakasleek egindakoa azpimarratzen da. Bestalde, Uxue Barkos kazetariari egindako elkarrizketa, drogen inguruko hausnarketa, agendak, laburrak, Fermin Irigarai "Larreko" idazle eta sendagilearen berri, Historiako atala... Herri aldizkariek duten formatua baino zerbait gehiago.

**DISKOA** | *Rocka*



**KEN ZAZPI**
Atzo eta bihar
11 kantu
Gor argitaletxea

Gernikan jaio zen proiektua, gauzatu da azkenean. Irrati formuletan horrenbeste bider entzundako kantuek azkenean izan dute fruitua. Ken 7ren kantuak diskoratuak daude jadanik. Kantuak KEN 7-k ekoiztu eta moldatu ditu. Estilo aldetik, rocka eta power-popa lantzen dituzte, eta konpromiso hitzak ageri dira kantuetan, beraiekiko eta beraien inguruarekiko konpromisoa hain zuzen ere, eguneroko kezkak eta egoerak deskribatzen dituztelarik, baita sentimendu sakonenak. Diskoaren izenburua, "Atzo da bihar" da, nolabait, gure herriaren iraganarendako etorkizun bat aldarrikatu nahia.

# Uztaila: 13-20

**Edu Mendibil** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Musika

### ANTZUOLA

> **Flitter, Supercools** eta **Fits** taldeak egubakoitzean, hilak 13, Plaza Gorrian, 23:00etan. Gaztetxeak antolatuta.

### ARETXABALETA

> **Techno jaia** zapatuan, hilak 14, gaztetxean. DJ Alain eta DJ Mordi (Inter-music) 17:00etan eta 23:00etatik aurrera Angel (Ziripot), Txuso eta Gorka (Jam) eta Ima (Chil Out) DJak.

### ARRASATE

> **Arima Beltza** taldea egubakoitzean, hilak 13, Ferrerias kaleko plazatxoan, 23:00etan.

### BERGARA

> **The Big Jamboree** egubakoitzean, hilak 13, Espoloian, 22:00etan.
> **V.O.S Quartet** taldearen jazz kontzertua eguenean, hilak 19, Espoloian, 22:00etan.

### ELGETA

> **Batzuk** eta **Autoa** taldeak eguenean, hilak 19, gaztetxean, 22:00etan.

### SORALUZE

> **Batzuk** taldea egubakoitzean, hilak 13, Gaztelupe tabernan, 22:00etan.

## Erakusketak

### ARRASATE

> **Koldo Gojenolaren** margo erakusketa Toki-Eder kafetegian.

### BERGARA

> **Pilar Muñoz** bilbotarraren margo erakusketa Nahikari tabernan, hilaren bukaerara arte.
> **Juan Jose Altuna Akizuren** margo erakusketa La Caixako bulegoan (Fraiskozuri, 7) abuztuaren amaiera arte.

## Lehiaketak

### ARRASATE

> **Jokin Zaitegi itzulpen laburren XV. sariketa.** Lehiaketa honetan edozeinek har dezake parte. Aurtengo gaia "Energia iturriak XXI. mendean" izango da, eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Jatorrizko testuen lehen argitalpena 1998, 1999, 2000 edo 2001 urteetan argitaratua egon behar du eta Internetetik hartutako testuen aintzinatasuna ere egiaztatu beharko da. Testuaren luzera 15-30 orrialde bitartekoa izango da. Irabazleak 1.250 euro eskuratuko ditu eta bigarren saria 625 eurokoa izango da. Lanak urriaren 31 baino lehen entregatu beharko dira. Argibideak AED elkartean, 943 77 12 28 telefonoan.
> **Komiki ez sexisten IV. lehiaketa**, Arrasateko Udalak deituta. Lanak aurkezteko epea uztailaren 20an bukatuko da. Testuak euskaraz zein gazteleraz aurkez daitezke. Lehen saria 100.000 pezetakoa da. Beste hainbat sari banatuko dira. Argibide gehiago Emakume sailaren bulegoan jaso daitezke, 943 79 09 00 telefono zenbakian.
> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zuribeltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

### OÑATI

> **San Migel jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa.** Lehiaketa honetan esku hartzeko oñatiarra izan edo Oñatin bizi beharra dago. Ezinbestekoa da ondorengo testua agertzea: *Oñatiko Jaixak 2001*. Irabazleak 40.000 pezetako saria jasoko du eta bigarren saria 20.000 pezeta izango da. Lanak aurkezteko epea uztailaren 16a arte izango da zabalik Turismo Bulegoan edo kultura etxean.

### GASTEIZ

> **Gazteen Bideo Amateurraren IX. Erakustaldia.** Filmak (hiru kopia VHS sisteman) aurkezteko epea uztailaren 31n bukatuko da. Lan onenentzat sariak egongo dira. Argibideak 945 28 61 42 telefono zenbakian.

### ZALDIBAR

> **Zaldibarko toponimia** jaso eta finkatzeko lehiaketa. Lana egiteko 12 hilabete izango dira eta lehiaketaren zenbatekoa 1.800.000 pezeta izango da. Norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek eskatu ahal izango dute lehiaketan esku hartzea. Lehiaketan esku hartzeko unibertsitate tituluduna izatea beharrezkoa da. Eskariak aurkezteko azken eguna uztailaren 26a izango da. Argibide gehiago 94 682 70 16 telefono zenbakian.

## Ikastaroak

### ARRASATE

> **Gorputz lan bioenergetiko taldea.** Eguaztenero, 18:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

### ARETXABALETA

> **Garapen pertsonala taldea.** Hilean bi bilduko dira larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara. Informazioa eta argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

### DEBAGOIENA

> **Udako Euskal Unibertsitateak** antolatzen dituen udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Iuñeko ikastaroak uztailaren 16tik 27ra izango dira. Izena ematea eta argibideak: 943 82 14 26.

## Deiak

### ARRASATE

> **Elkarri.** Arrrasateko Elkarriko kideek bake konferentziaren aldeko sinadura bilketa egingo dute egubakoitzean, hilak 13, 19:00etatik 20:30era Portaloian.

### BERGARA

> **Erromesaldia.** Arantzazuko Santutegira eta Loiolako Santutegira bisita uztailaren 25ean. Irteera Bergaratik 9:30ean egingo da, autobusen geltokitik. Autobusak Arantzazu baino piskat lehenago, Zelaizabalen gelditukodira eta oinez joan ahal izango da bertatik Basilikaraino. Helduak edo hala nahi dutenak autobusez joan ahal izango dira plazaraino. 11etan penitentzia komunitarioa egingo da, 12etan meza nagusia izango da Basilikan eta 14:00etan erromesen bazkaria Hospederian. Arratsaldeko 5etan Ama Birjinari agurra egingo zaio: errosarioa eta benedikta. 17:30ean autobusak irtengo dira Arantzazutik Loiolaruntz, Bergaran geldialdi bat egingo da, eta arratsaldeko 8etan Loiolatik itzulera egingo da. Izena ematea Agirrebeña (San Antonio), Garitano (Zubiaurre) edo Zatoia (Barrenkale) dendetan egin daiteke. Autobus txartelak 850 pezeta balio du eta bazkarirako txartelak 2.000 pezetan daude salgai.
> **Erretratu zaharrak.** Jardun elkartea, Debagoieneko euskara elkartearekin batera, bailarako herrietako argazki zaharrak biltzen hasi da, datorren urteko egutegia prestatzeko asmoz. Beraz, Jardunek dei egiten die herriko argazki zaharrak dituztenei Kartzela Zaharreko bulegotik pasatzeko. Debagoieneko beste euskara elkarteetara ere jo dezakete laguntzeko prest direnek.
> **Jardun elkarteak** irailetik aurrera Bergaran abian jarriko duen "Kuadrillategi" izeneko egitasmorako dinamizatzaileak behar dira. Bete beharreko baldintzak: 20 urtetik gorakoa izatea, euskaraz jakitea eta irakasle ikasketak, pedagogia, psikologia, soziologia nahiz gizarte hezkuntza ikasten egon edo ikasketak bukatuak izatea. Interesatuok ekainaren 30a baino lehen bidali behar dute curriculuma helbide honetara: Jardun elkartea. Juan Irazabal z/g (Kartzela). 20570 Bergara.

### OÑATI

> **Pirinioetara irteera** uztailaren 21ean eta 22an, Aloña Mendik antolatuta. Uztailaren 21ean Cauterets-en izango dira eta uztailaren 22rako bi aukera egongo dira: Petit Vignemale edo Vignemale Handia. Vignemale Handira igotzeko beharrezkoak dira pioleta eta kranpoiak eramatea. Bazkideak: 8.000 pezeta. Gainerakoak: 9.000. 18 urtetik beherakoak 5.000 pezeta. Izena ematea uztailaren 16a arte zabalik.

### DEBAGOIENA

> **Uda euskaraz 2001.** Gasteizko Bagare euskal tokiak eta Deustuko Berbaizu elkarteak udako oporrak talde antolatuan egin gura duenari talde euskaldun batekin egiteko aukera ematen diote. Aurten bi bidaia antolatuko dituzte, Txekia-Poloniara (abuztuaren 11tik 27ra) eta Bretainia-Herbereetara (uztailaren 31tik abuztuaren 13ra). Argibideak 945 26 19 56 (Jesus) edo 94 447 10 42 (Josu) telefonoetan jaso daitezke.

## Jaiak

### ANTZUOLA

> **Antzuolako jaiak.**
Egubakoitzean, hilak 13, Triki ta



MUSIKA

### ARIMA BELTZA ARRASATEN

Arima Beltza taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Arrasaten. 1997an taldea sortu zenetik, elgoibartarrek disko bat kaleratu dute eta aurki beste disko bat kaleratzekotan dira. Jon Gurrutxaga (bateria eta ahotsa), Aitor Badiola (gitarra eta ahotsa), Joseba Alonso (armonika), Iñigo Araujo (baxu elektrikoa) eta Lander Trinidadek (gitarra eta ahotsa) osatutako boskoteak, bluesa eta rock & rolla jorratzen dute euren abestietan.

**Noiz:** Egubakoitzean, hilak 13. **Non:** Arrasateko Ferrerias kaleko plazatxoan. **Ordua:** 23:00.

## Hitz gezidunak




## Bila-bila 7







## Umore giroan

Aitor Muruamendiaraz

**TXAKURRAREN ZAUNKAK**

Juan da tipo bat fabrika batera eta sarrerako zaintzailliakin berriketan hasi da. Onduan, txakurra, zaunka baten... Hurrengo egunian, juan da berriro eta txakurra berdin. Handik astebetera juan da berriro eta txakurra etzindda. Eta galdetu dotsa zaintzailliari:

- Txakur hau?

Eta zaintzailliak:

- Txakurra?, fijo egin dabe eta!

**ARRAUTZEKIN BIZIKLETAN?**

Antzuolako Usarraga auzuan bazebillen mutikua jolasian. Halako baten, amak:

- Iñaki, etorri zaittez hona! Hartu honeik arrautzok eta eruan Antzuolaraiño.

Eta semiak:

- Bai, ama, juango naz, baiña nik bizikletan juan nahi dot!

Eta amak:

- Ez, seme, bizikletan arriskutsua da. Hobe dozu oiñez juaten bazara.

Eta semiak:

- Ama, ama, nik bizikletan juan nahi dotela...

- Oiñez juateko, arriskutsua dala...

Eta belarrondokua emun dotsa amak. Mutikuak, negarrez, hartu dittu arrautzok eta badoia Antzuolaruntz. Azkeneko baserrixan ikusi dau oillarra oilluaren gaiñian. Hartu eta jo dotsa ostikada bat oillarrari, eta esan dotsa:

- Hik zer uste dok, ba, hi bizikletiakin eta ni bizikleta barik ala?

## Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



### Zein herritan da herrian bertan jaiotakoen proportzioa altuena?

Joan den urte bukaerako datuen arabera, Debagoieneko bizilagunen erdia baino gehiago orain bizi diren herrian jaio zen. Baina asmatuko ote zenuke zein herri den proportzioan ezaugarri hori betetzen duen jende gehien duena? (Aramaio kontatu gabe).

- Oñati
- Antzuola
- Leintz Gatzaga

**Erantzun zuzena:** Oñati, %68; Antzuola, %62; Leintz Gatzaga, 47

### Soluzioak



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | • | B | • | D | • |
| | | | M | I | K | E | L |
| | | | • | L | A | I | A |
| • | L | • | S | O | S | A | K |
| X | A | L | O | • | K | • | U |
| • | S | A | R | K | O | R | • |
| B | A | S | A | • | A | I | A |
| • | I | K | U | R | • | O | L |
| A | G | U | R | E | A | • | A |
| • | A | R | E | • | D | I | K |
| E | R | A | N | D | I | O | • |
| • | R | I | • | U | T | I | K |
| S | I | N | A | T | U | • | I |

## Horoskopoa

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Zailtasunak aste honetan harremanen arloan. Ahalegindu gauzak samurtasun osoz esaten, berba egiteko zure moduaren bitartez baten bat mindu dezakezu eta

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Bolada ona harremanetarako; lanean onura ekar diezazuketen harremanak izan daitezke gainera.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Ona da lanean arduratsua eta zorrotza izatea, baina horrek ez du esan nahi zeure lau ideietatik ez ateratzea. Ibili arretaz gauza berriekin, aukera berriak agertuko zaizkizu eta.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Lasaitasuna eta bakea familian. Aztoratu zaitzakeen bakarra, edukiko dituzun gastu ugariak izango dira, handiak eta ezustekoak izango dira eta.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Zeure helburuen lorpenerako traba baino ez diren bide eta ohitura zaharrak berritu eta aldatzeko garaia. Aldatu zaitez.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Geldialdian zaude, eta komenigarria litzateke une hori zure egitasmoak aztertzeko erabiliko bazenu, gerora beharrezko aldaketak egin ditzazun.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Lan arloan esperantza handiak; behar gehiago eta ekoizpen handiagoa izan ditzakezu. Une egokia da indarra bildu eta aldarte onean egoteko.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Bizi zure poztasuna besteekin batera. Lehengo zure ahaleginak fruitua ematen hasi dira..

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Saiatu atseden hartzen, eta ez zaitez kezkatu gauzak erdizka uzteagatik, estresatuta baitzaude. Osasuna da garrantzitsuena. Zaindu zeure burua!

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Ez izan zeurekoia izatearen beldur, zeure buruarengan besteengan baino gehiago pentsatzeagatik, eta zeure irizpideen arabera jokatzeagatik, horiek eramango zaituzte-eta nahi duzuna lortzera.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Saiatu atsedenaldia hartzen, harremanen inguruan hausnartzeko, batez ere bikoteko harremanen inguruan, ez baitzaude gustura eta aldaketak nahi dituzu. Pentsatu egin aurretik.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Une goxoa eta lasaia. Gozatu. Maitasun harremana hasteko aukera.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA




ñaki Padilla bergararra eta **Mili** mexikarra uztailaren 28an ezkonduko dira Estatu Batuetan, Indianapo-isen, hain zuzen ere. Hala ere, gero Zarautzera etorriko dira bizitzera. Joan den zapatuan, Iñakiri agur-faria egin zioten koadrilakoek Arabako Errioxan. Argazkian ikus daitekeenez, beste koadrila bat ere topa-u zuen Iñakik! Zorionak, bada, kabestroen partetik.



**June Legorburu Korta** antzuolarra **Esther** amarekin, mondragoetarra. June ekainaren 26an jaio zen, eta 2,900 kilo pisatu zuen. **Jon** da aita, antzuolarra bera ere.



**Oihana Duran Hervas** bergararra gurasoekin eta anaia **Iban**ekin. Oihana uztailaren 5ean jaio zen, eta 3,980 kilo pisatu zuen. **Mari Jose** eta **Sabino** dira gurasoak; ama azkoitiarra eta aita, berriz, bergararra.



**Gabriel Garcia Garzon** mondragoetarra aitita **Jose Carlos**ekin. Gabriel uztailaren 6an jaio zen, eta 3,570 kilo pisatu zuen. Jose da aita, mondragoetarra. Gurasoak **Ana Belen**, eskoriatzarra, eta **Jose**, mondragoetarra, dira.



**Unai Balbas Del Palacio** eskoriatzarra gurasoekin. Unai uztailaren 4an jaio zen, eta 2,900 kilo pisatu zuen. **Ana**, atxabaltarra, eta **Josema**, eskoriatzarra, dira gurasoak.



**Amalur Lopez** arrasatearra eta **Ramon Ambroy** bergararra bihar, zapatua, ezkonduko dira Itziarren. Gero, Salegi jatetxean bazkalduko dute lagun eta senitartekoekin. Zorionak, bada, bikote, amama, guraso, Leire eta Santiren partetik!

## JAIOTAKOAK

**Iker Fernandez Sedano.** Eskoriatzan, ekainaren 18an.
**June Legorburu Korta.** Antzuolan, ekainaren 26an.
**Unai Sampietro Alberdi.** Bergaran, ekainaren 26an.
**Luis Txintxurreta Intxausti.** Oñatin, uztailaren 1ean.
**Unai Murgiondo Larrea.** Antzuolan, uztailaren 3an.
**Unai Balbas Del Palacio.** Eskoriatzan, uztailaren 4an.
**Oihana Duran Hervas.** Bergaran, uztailaren 5ean.
**Jone Mujika Unamuno.** Bergaran, uztailaren 5ean.
**Josu Castro Sierra.** Arrasaten, uztailaren 5ean.
**Gabriel Garcia Garzon.** Arrasaten, uztailaren 6an.
**Christian Galan Guiver.** Arrasaten, uztailaren 7an.
**Ekain Perez Borrego.** Aretxabaletan, uztailaren 7an.
**Antton Unanue Alzola.** Aretxabaletan, uztailaren 8an.

## EZKONDUAK

**Jose Antonio Morgado Matador** eta **Miren Itziar Bengoa Altuna,** ekainaren 29an, Aramaion.
**Mikel Aiastui Andueza** eta **Kristina Markina Igarza,** uztailaren 7an, Bergaran.
**Asier Arana Beitia** eta **Cristina Cardenal Garcia,** uztailaren 7an, Arrasaten.
**Luis Miguel Egizabal Martinez** eta **Maria Jose Astaburuaga Aiestaran,** uztailaren 7an, Arrasaten.
**Fernando Oncala Delgado** eta **Amaia Arroitia Alberdi,** uztailaren 7an, Arrasaten.
**Ricardo Diaz Salamanca** eta **Marta Rosa Fuentes Rodriguez,** uztailaren 7an, Arrasaten.

## HILDAKOAK

**Nazaria Errasti Urzelai.** Eskoriatzan, uztailaren 9an, 83 urte zituela.




Gogo handiz eskatzen ari zinen. Behar zenuen. Telefonia mugikorreko benetako profesionalak, **movitel2000** eta Telefónica MoviStar, Gipuzkoan eta Nafarroan gehien zabaldu den telekomunikazio-taldea, Arrasaten daude orain. **Mugikorrak, osagarriak, enpresako telefonia, aholkularitza pertsonalizatua eta aitzindari baten prezioak...** Zure komunikazioetarako imajina dezakezun guztia, Arrasaten Biteri kaleko 15 zk.an duzu. **Azkenean.**

• **DONOSTIA** Toribio Alzaga - Tel.: 943 46 09 63
• **BEASAIN** Oriamendi-Etxe Ubi - Tel: 943 80 50 89
• **IRUÑA** Irunlarrea,6 - Tel: 948 19 70 72

Banatzaile Ofiziala:

movitel2000
Mugikortasun zentro digitalak

**Biteri Etorbidea, 15 • 20500 ARRASATE**
**Tel.: 943 77 21 33 • Fax: 943 77 21 34**
**www.movitel.com - arrasate@movitel.com**

Telefonica MoviStar

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko uztailaren 13a

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Maite Aristegi/EHNE sindikatuko idazkari nagusia

**Zer egiten du emakume baserritar batek sindikatu baten zuzendaritzan?**
Gizon batek egingo lukeena. Niri tokatu zait, eta hortxe ari naiz, baserritarren interesak defendatu nahian euskal baserriak aurrera egin dezan.

**Noiz hasi zinen sindikatuan lanean?**
Lau urte udaberrian bete dira. Aurretik, abokatutza ikasketak bukatu nituenean, abokatu lanak egiten hasi nintzen sindikatuan, beti ere baserriko lana mantenduz.

**Gustukoago, abokatutza ala baserria?**
Baserria, inongo duda barik. Abokatutza ikasten hasterakoan norberak baditu ideal batzuk, eta helburu batzuk betetzeko balioko dutela uste izaten da. Errealitatea, ordea, oso gogorra da, eta munduan injustizia eta bidegabekeria ugari dago legeen inguruan.

**Zer eskain dezake baserriak hiriak eskain ezin dezakeena?**
Gauza asko, eta horren beharra badu hiriko jendeak. Ikusi besterik ez dago zenbat estimatzen duten hiritarrek kanpora irten eta naturarekin zuzeneko harremana izatea. Hori guztia eskain dezake baserriko lanak. Ingurumenarekiko oreka mantenduz arbasoek egindako lanari eustea garrantzitsua da oso. Gainera, baserritarrek ingurukoei jaten ematen diete, eta jan, guztiok egin behar dugu; ongi jatea oso garrantzitsua da, gainera.

**Halere, ez du jende askok aukeratzen bide hori. Baserriaren etorkizuna kolokan dago?**
Egia esanda, laino beltzak ikusten dira. Argi dago beste lan batzuek gehiago baloratzen diren alizienteak eskaintzen dituztela: lanordu zehatzak, soldata konkretua, jai egunak... Gaur egun baserria ez dago behar bezala ordainduta, hasieran inbertsio batzuk ere egin behar dira, eta lurra lortzea ere zaila izaten da batzuetan. Beraz, baserriaren bidea aukeratzeko erraztasunak eman behar zaizkie gazteei.

**Baserriturismoa izan daiteke nekazaritzaren salbazio?**
Baserri bakoitzak begiratu behar du nondik atera dezakeen egoki bizitzeko adina. Aukera horietako bat nekazalturismoa izan daiteke, baina baserriaren oinarria ahaztu gabe.

**AHT, autopista, haize errotak... onuragarri ala kaltegarri dira baserritarrentzat?**
Lurrik gabe hemengo baserriak ez du inolako etorkizunik. Gero eta arazo gehiago daude gure lurraren inguruan, eta biziki kezkatzen gaituzte ongi frogatu gabeko behar sozialik gabe eta gizarteari aparteko abantailarik ekarri gabe egiten diren obra erraldoiek. Gizarte eztabaidarik gabe proiektu mordoa onartzen dira, eta pentsatu gabe nola hipotekatzen dituzten datozen belaunaldiak.



**"Munduan injustizia eta bidegabekeria ugari dago legeen inguruan"**

**"Baserriaren bidea aukeratzeko erraztasunak eman behar zaizkie gazteei"**

**"Lurrik gabe hemengo baserriak ez du inolako etorkizunik"**

▶ *Bergararra / 38 urte / Sindikalista*

## AIPAGARRI



**JON ANDUEZA**
**Mondragoe / Kazetaria**

Hirugarren film laburra grabatuko du Elgetan datorren astean, *Aita gurea* izenburukoa. Apaiz baten gorabeherak kontatuko ditu. Martxelo Rubio eta Oihana Maritorena *Hasiberriak* telesaileko aktoreak izango dira protagonistak. ETBko telesilean Guti eta Jokinen paperak egiten dituzten Gorka Igartua eta Mikel Antero ere agertuko dira filman.



**AGURTZANE BARRUTIA**
**Mondragoe / Idazlea**

Erguin Herri Eskolako irakaslea da, eta bere lehen liburua argitaratu berri du, *Zure berrien zain* izenburukoa. 6 urtetik gorako haurrentzat dago idatzia. 63 orrialde ditu, marrazki eta guzti. Martin eta Elisabete neska-mutikoek elkarri idazten dizkioten gutunak erabili ditu Agurtzanek kontakizunean. Liburua Elkar etxeak argitaratu du.

